

EUSKADIKO
ZINEMA
JASANGARRIAREN
ESTRATEGIA 2022-2024

2022, martxoak
1.3 bertsioa

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| Sarrera | 06 |
| Hitzaurrea | 07 |
| Laburpena | 08 |
| Metodologia | 09 |
| 1. Testuinguru orokorra | 10 |
| 1.1. Defini dezagun jasangarritasuna | 11 |
| Hiru arteko oreka | 11 |
| Ekonomia zirkularra | 12 |
| 1.2. Estrategiak eta ekintza-esparruak | 13 |
| COP21 eta Parisko akordioa | 13 |
| Garapen Jasangarriko Helburuak | 14 |
| Europar Batasuna eta Europako Itun Berdea | 16 |
| Euskadi: Basque Green Deal eta Ekonomia Zirkularraren Estrategia | 16 |
| 2. Zinema jasangarria gaur egun | 18 |
| 2.1. Zinemak zer inpaktu sortu duen | 18 |
| Euskadiko zinemagintza | 18 |
| Ingurumen-inpaktua | 19 |
| 2.2. Ekimenak eta antolakundeak | 21 |
| Nazioartekoak | 21 |
| Estatua | 24 |
| Euskadi | 25 |
| 2.3. Baliabideak eta tresnak | 26 |
| Zigilu berdeak | 26 |
| Gidak | 28 |
| Kalkulagailuak | 28 |
| 2.4. Jasangarritasun-irizpideak eskatzen dituzten laguntza-programak | 29 |

| | |
|--|----|
| 3. Euskal sektorearen ikuspegia | 30 |
| 3.1. Jasangarritasuna gaur | 32 |
| 3.2. Hautematen diren oztopoak | 34 |
| 3.3. Trantsizio berderako gakoak | 36 |
| 4. Ikuspegia | 38 |
| 4.1. Helburu estrategikoak | 38 |
| Zinema zirkular eta jasangarriaren ekoizpena bultzatzea | 39 |
| Berritu ditzagun ekoizpen-prozesuak eta haien eskutik doazen zerbitzuak | 39 |
| Euskadi zinema jasangarriaren erreferente bihurtzea | 39 |
| Lankidetzeta handiagoa behar da ikus-entzunezkoen sektoreko funtsezko eragileen artean | 39 |
| 4.2. Jardute-ildoak | 40 |
| Zuzenekoak | 40 |
| Zeharkakoak | 42 |
| 5. Ekintzak | 44 |
| 5.1. Basque Green Film | 44 |
| Zerbitzuak | 45 |
| 5.2. Laguntza-programak | 50 |
| Eusko Jaurlaritzaren laguntzak ikusentzunezkoak ekoizteko Ziurtagiri berdea | 50 |
| Ziurtagiri berdea | 51 |
| 5.3. Lan-mahaiak | 52 |
| Talde eragilea | 52 |
| Euskadiko eragile giltzarriak | 53 |
| Nazioarteko sarea | 53 |

SARRERA

HITZAURREA

2021eko maiatzaren 12an, Europako Itun berdearekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzak ibilbide-orri bat aurkeztu zuen, hari jarraituz etorkizun jasangarriagoa lortzeko: Basque Green Deal (BGD); han dago zehazturik datozen urteetan Euskadin zer helburu lortu nahi ditugun emisioak murrizteko eta energia berriztagarria sortzeko ahaleaginean. Horretarako, begi aurrean zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa eta elikatzeko-katea harturik, arlo horien guztien garapen bidezko eta jasangarria ildo bakar batean bildu nahi dugu.

Bada, ikus-entzunezkoen sektoreak ere bat egin behar du konpromiso horrekin, eta, horregatik, zinema jasangarria bultzatzea erabaki dugu, hartara euskal ekoizpenek ahalik eta inpakturik txikiena izan dezaten ingurumeneari. Dokumentu honetan, Euskadiko Zinema Jasangarriaren Estrategia honetan, diagnostiko bat egin dugu, hots, nola dakusagun ikus-entzunezkoen sektorea, helburu eta ekintza-ildoak, eta datozen 3 urteetarako ekintza-plana.

Laguntza-politiketan jasangarritasun-irizpideak txertatuz, enpresei laguntza modura zerbitzu egokituak eskainiz eta sektoreko funtsezko eragileen arteko lankidetzaren bidez, ea lortzen dugun Euskadiko ikus-entzunezkoen sektorea eskualde erakargarri sendoa izatea zinema modu jasangarrian ekoizteko, planetarentzat eta pertsonentzat jasangarria.

LABURPENA

Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezko ekoizpen jasangarriak bultzatuko ditu, produkzioarako laguntza-programen eta Basque Green Film idazkaritza teknikoaren bitartez.

Euskadik zinema-ekoizpen zirkularra eta jasangarria bultzatu nahi du; hala dakar Zinema Jasangarriaren Estrategian, Eusko Jaurlaritzak onartua 2022-2024rako. Aukera polita da ekoizpen-prozesuetan berritze-bideari ekiteko, Euskadiri leku bat emateko ikus-entzunezko produkzio jasangarriaren erreferente modura, eta sektoreko funtsezko eragileen artean lankidetzat sustatzeko. Bidea argi izanik -horretarako baitauzkagu Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) eta Europako eta Euskadiko estrategia berde eta zirkularrak (Europako Itun Berdea eta Basque Green Deal)-, Eusko Jaurlaritzak helburu horretara arlo gehiago erakartzen jarraitzen du.

Plan hori garatzeko, Euskadiko hogeitabi ekoizle profesionali galdetu zaie iritzia. Era berean, nazioartean zinema jasangarriaren alde garatu den hainbat ekimen aztertu da. Gainera, ikus-entzunezkoen euskal sektoreko eragile nagusiek ere lagundu dute, zehazki, Euskadiko hiru Film Commission batzordeek (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) eta zinema eta ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen elkarteek (Apika, Eiken, EPE-APV eta Ibaia).

Plan estrategiko honen ekintza-ildo nagusiak hiru dira: ikus-entzunezkoen produkzio-prozesuan jasangarritasun-irizpideak txertatzea; filmaketetan kokaguneak zaintzea; eta erosketa-politika berdeak sustatzea. Horretarako, 2022tik aurrera, Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoen ekoizpenerako ematen dituen laguntzetan, jasangarritasun-plana dakarten proiektuei puntu bat emango zaie. Lan hori errazte aldera, Basque Green Film-ek (BGF) aholkularitza pertsonalizatua eskainiko die aurkezten diren ikus-entzunezko proiektuei. Gainera, oinarrizko gida bat ere eskainiko da ikus-entzunezko jasangarriak ekoizteko, eta prestakuntza-tailerrak, eta informazio eguneratua.

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspena da 2024tik aurrera "Green Film" ziurtagiria ere eskatuko dela Euskadin ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzen programan. Europako Eskualdeetako Zinema Erakundeen Sareak ere, CineRegio-k, zigilu hori bultzatzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura eta Hizkuntza Politika Saila hor sartuta dago.

1. atalean, testuinguru orokorraren deskripzioa egin dugu, baina jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra oinarri hartuta, nazioartean hasi, eta euskal lurralderaino. 2. atalean, berriz, zinema jasangarria gaur egun zertan den aurkeztu dugu, eskuragarri dauden ekimenak eta baliabideak azaltzeaz batera. 3. atalean, euskal sektoretik begira jarri gara, ikus-entzunezkoak ekoizten dituzten hogeitabi profesionali egindako elkarrizketak baliatuta. 4. atalean, plan estrategiko honen helburuak eta ekintza-ildoak azaltzen dira. Eta, azkenik, 5. atalean, zer ekintza-plan aurreikusten den eta zer helburu espezifiko dauzkagun azaldu dugu.

METODOLOGIA

Zinema jasangarrirako plana idatzi aurretik, diagnostiko bat egin genuen, ea sektorea nola zebilen jasangarritasunaren aldetik. Alde batetik, hurrengo urteetarako estrategia diseinatzeko gakoak identifikatu nahi genituen. Eta, bestetik, lehen iritzi-bilketa bat egin, ea zinemaren sektoreko funtsezko eragileei zer iruditzen zitzaizkien hasierako ideiak (idazkaritza teknikoa eta ekoizpenerako laguntzak).

Hasiera batean, jasangarritasuna eta zirkulartasuna sektorean zelan ziren aztertu genuen, gure lurraldeko eragileen ekimenetatik hasita, batez ere Film Commissions eta ekoizle-elkarteak. Ondoren, nazioartean erreferentzia diren ekimenak identifikatu eta aztertu genituen, albo batera utzi gabe zinema garatzeko agentziak, zigilu berdeak eta hainbat motatako proiektuak.

Era berean -eta honi garrantzi berezia eman diogu-, batez ere Euskadin jarduten duten ekoizleei zuzen-zuzenean nahi izan diegu galdetu eta entzun. Horretarako, ekoizpen-etxeek lagunduta, hogeit hamar profesionalen atea jo dugu eta elkarrizketa egin, guztiak ere eskarmentu handikoak ekoizpen exekutiboan, ekoizpen-zuzendaritzan eta ekoizpen-buruzagitzan. Elkarrizketa horietan, galdetu zitzaien ea jasangarritasuna nola iruditzen zitzaien zegoela sektorean, zer erronka eta aukera dauden, eta, amaitzeko, ea, jasangarritasuna produkzio-prozesuan sartu nahi izatera, gakoak zein diren.

Diagnosia egin ondoren eta ikus-entzunezkoen sektorean jasangarritasuna zertan den jakin eta gero, hurrengo urratsa 2022-2024rako helburuak jartzea izan zen, eta jardun-ildoak, eta ekintza-plana. Horretan aritu zen talde eragilea, aldizka-aldizka lan-bilerak eginez; han ziren Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko arduradunak, Zineuskadi eta Basque Green Film idazkaritza tekniko eratu berria (BGF).

1. TESTUINGURU OROKORRA

Kulturaren eta jasangarritasunaren arteko binomioa ez da oraingo kontua. Alexander von Humboldtek (1769-1859) natura osotasun baten gisara ulertu zuen, sare lotu eta elkarmenpeko baten modura. Izan ere, poesia eta artea zientzia eta politikarekin konbinatzeko ahalegina egin zuen, eta horrek eman zion natura ekosistema gisa ikusteko modu hori. Formatu zientifiko-humanista horri esker, hark landu zituen teoriak aukera polita dira kulturaren eta jasangarritasunaren arteko lotura ulertzeko, eta gaur egun ere oraindik indarrean diraute.

Garapen jasangarriak hiru arlo bateratu izan ditu: gizartea, ingurumena eta ekonomia, eta kultura gizarte-arloaren menpeko jo izan du. XXI. mendera iristiaz batera, kulturaren kontzeptuak eta jasangarritasuna uztarri berean lotzeko beharra sortu zen, argi ikusita gizakiaren, naturaren eta kulturaren sistema denak bat bestearen mendeko direla. Eta horra hor nola, 2001 ean, Jon Hawkes ikertzaileak proposatu zuen kultura-aldagaia gehitzea jasangarritasunaren laugarren zutabe gisa.

Gaur egun, jasangarritasunaren zutabe kulturala jorratzen ari dira oraindik. Kezka horretatik dator dokumentu hau, nahiko baikenuke kultura-proiektuetan jasangarritasuna txertatu, batez ere, zinemagintzan ere ingurumen-jasangarritasuna txertatu.

Testuinguru orokorrari buruzko kapitulu honetan, bi gauza egin ditugu: jasangarritasuna ere testuinguruan jarri, eta ikusi -eta aipatu- zer estrategia ari diren lantzen aldaketa klimatikoari jasangarritasunaren bidetik aurre egiteko. Hori dela eta, jasangarritasunaz gain, beste gauza batzuk ere deskribatu ditugu: ekonomia zirkularra, Alderdien Konferentzien topaketan garrantzia (COPk izenez ezagunagoa, ingelesezko siglen arabera, The Conferences of the Parties”), garapen jasangarriko helburuak (GJH) eta Europako eta Euskadiko estrategia berdeak eta zirkularrak.

1.1. DEFINI DEZAGUN JASANGARRITASUNA

Hiru arteko oreka

Jasangarritasuna aldagai bakar batekin lotu izan da: ingurumenarekin. Eta, bai, gaur egun aldagai horrek pisu handia du, baina jasangarritasuna hiru indar arteko oreka da: ingurumena, gizartea eta ekonomia.

Hala da 1987an Brundtland txostena argitaratu zenetik. Nazio Batuen ingurumen-batzordeak eskatuta egin zen, Gro Harlem Brundtland Norvegiako ministro ohia lanen buru jarrita. Dokumentu horretan, garapen jasangarria honela definitzen da: "Egungo belaunaldiaren beharrak asetzera, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko duten gaitasuna arriskuan jarri gabe".¹



Dimentsio bakoitzaren inplikazioa honako hau da:

Ingurumenaren jasangarritasuna

Dena delako jarduera bateragarria izatea bioaniztasuna eta ekosistemak zaintzearekin, natura andeatzea saihestuta. Zutabe honen beharra dago, beste biak egonkorrak izan daitezten.

Gizartearen jasangarritasuna

Kohesio soziala du oinarri, eta helburu erkide batzuk iristen saiatzeko gaitasuna erakusten du. Bi gauza dakartza berekin: dena delako jarduerak eragiten dituen gizarte-inpaktu negatiboak arintzea; eta inpaktu positiboak indartzea.

Ekonomiaren jasangarritasuna

Ingurumen eta gizartearen jasangarritasunaren alde egitea bideragarria eta errentagarria denean finantzen ikuspegitik ere.

Hortaz, dena delako proiektua jasangarria izango bada, oreka bilatu behar hazkunde ekonomikoaren, ingurumena zaintzearen eta gizarte-ongizatearen artean.

Gida honetan landuko ditugun arloetan ingurumenaren jasangarritasuna izango dugu, batez ere, kontuan; horixe izango da lan honen ikuspuntua. Ahaztu gabe, hala ere, proiektu bat, jasangarria izango bada, errentagarria ere izan behar dela, eta gizarte-eta lan-kontziliazioa bermatu behar duela.

¹ <https://undocs.org/es/A/42/427>


Ekonomia zirkularra

Osotara hartuta, azken hamarkadetan baliabideen eskariak gora egin du, besteak beste, munduko biztanleriak ere gora egin duelako eta hazten ari diren ekonomiengatik, Azkenean, bateko eta besteko, baliabide naturalen kontsumoa ere nabarmen bizkortu da. Eta zer dio ekonomia zirkularrak? Baliabideen erabileraren optimizaziotik abiatuta, ekonomia jasangarriaren oinarriak nahi ditu jarri, horixe. Bide horretan, Ellen MacArthur Fundazioarena (EMF) izan da ahotsik argi eta ozenenetako bat .

Ikuspegi ekonomiko berri horrek berekin dakar baliabide naturalak erabiltzeko paradigma aldatzea, eta beraz, baita ingurumenarekin erlazionatzeko modua ere. Eredu zirkular berrian, produktuen eta materialen bizi-zikloak ahalik eta denbora gehien

irauten du; hondakinak ahalik eta gehien murrizten dira; eta baliabideak behin eta berriz sartzen dira ekoizpen-zikloan, ondasunak bizitza baliagarriaren amaierara iristen direnean balioa sortuz. Alegia, utz dezagun alde batera ekonomia linealeko **“erauzi, ekoitzi, erabili eta bota”**, eta goazen ekonomia zirkularreko **“murriztu, berrerabili eta birziklatzera”**.

EMF fundazioak honela definitzen du ekonomia zirkularra: “gauzak lehen bezala uzten ditu, birsortu egiten ditu, nahita; eta saiatzen da produktuek, osagaiek eta materiek baliagarri izaten jarrai dezaten, dutenik eta baliorik handiena izan dezaten denbora guztian, ziklo teknikoak eta biologikoak bereiziz. Haren premisa da ondo bereiztea garapen ekonomiko globala eta baliabide berriztagarrien kontsumoa.²



Iturria: PBL, Netherlands Environmental Assessment Agency, 2016

² Towards the Circular Economy (EMF, 2013)

Hauek dira ekonomia zirkularraren hiru printzipioak, EFMren arabera:

- 1. Printzipioa:** kapital naturala zaindu eta hobetzea, kontrolpean hartuz bai izakin finituak bai baliabide berriztagarrien fluxuen oreka.
- 2. Printzipioa:** baliabideen errendimendua optimizatzea, produktuen, osagaien eta materialen zirkulazioan momentu oro haien erabilgarritasuna maximizatuz, bai ziklo teknikoan bai biologikoan.
- 3. Printzipioa:** sistemen eraginkortasuna sustatzea, kanpoko faktore negatiboak detektatuz eta diseinutik at utziz.

Eredu ekonomiko zirkularragoa lortzeko trantsizioa Nazio Batuen 2030 Agendaren ildo berberetik doa, eta aldaketa-palanka gisa balio du NBEren garapen jasangarriko helburuak lortzeko.

1.2. ESTRATEGIAK ETA EKINTZA-ESPARRUAK

Klima-aldaketa eta ingurumenaren narriadura dira Lurrak dauzkan mehatxu garrantzitsuenetakoz batzuk. Klima-aldaketaren arrazoi nagusia berotze globala da, eta ondorio negatibo ugari ditu sistema fisikoetan, biologikoetan eta gizatiarretan.

Industria Iraultzaz geroztik berotegi-efektuko gas gehiago isurtzen da atmosferara, ikaragarri gehiago. Geroz eta jende gehiago garelako, baliabideak neurri-gabe kontsumitzen ditugulako, eta energia fosilak darabiltzagulako, planeta berotzen ari da, historian lehen aldiz giza jardueraren ondorioz.

Planetako tenperatura globalaren igoera horrek ondorioak ditu, eta arriskuan jartzen du Lurreko floraren eta faunaren biziraupena, gizakiarena barne.

COP21 eta Parisko akordioa

COPak Nazio Batuetatik datoz, hain zuzen ere Klima Aldaketari buruzko 1992ko Esparru Hitzarmenetik. Izan ere akordio globalak behar ziren, aldaketa globalaren erronkari denok batera aurre egiteko eta erantzuna emateko; horretarako sortu ziren Konferentzia horiek. Bada, topaketa horien mugarrien artean, bi: 1997ko COP3, Kiotoko akordioa ekarri zuena; eta COP21, Parisko akordioa ekarri zuena.

Parisko akordioa³ klima-aldaketari buruzko nazio-arteko ituna da, loteslea. 196 herrialdek adostu zuten, COP21aren itzalpean, Parisen, 2015eko abenduaren 12an, eta 2016ko azaroaren 4an jarri zen indarrean. Munduaren berotzeari muga jarri nahi zioten, ez dadin igo industria-aurreko garaietan baino 2 ° C-tik gora behintzat (ahal dela, ez 1,5 ° C baino gehiago). Eta epe luzerako helburu hori erdieste aldera, herrialdeen asmoa zen berotegi efektuko gas-emisioei muga bat jartzea lehenbailehen, hartara, mendearen erdialderako, klima neutroa izan dezagun gure planetan.

Klima-aldaketaren prozesu alde-askotariko horretan, Parisko Akordioak mugari bat jarri zuen; izan ere, herrialde guztiak prest zeuden asmo handiko ahal-eginak egiteko, klima-aldaketari kontra egin eta haren ondorioetara egokitzeko; akordio lotesle batek kausa erkide horren itzalpean elkartzen zituen lehen aldian.

³ <https://unfccc.int/es/process-and-meetings/the-paris-agreement/el-acuerdo-de-paris>

Garapen jasangarriko helburuak

Garapen jasangarriko 17 helburuak ⁴ Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE) sortu zituen, Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren zati gisa. Agenda horrek plan bat ere badakar, helburu horik 15 urtean lortzeko.

Garapen Jasangarriko 2030 Agenda ⁵ ibilbide-orri bat da, garapen globala eta giza garapen jasangarria lortzeko prestatua, baina ez dago soilik gobernuei begira sortua, enpresa eta gizarte-erakundeen atea ere jotzen baitu.

Garapen jasangarriari dagozkion 17 helburuetatik, honako hauek ingurumen-aldagaiarekin lotuta daude:

- 6. GJH.** Ura denentzat egon behar da eskuragarri, kudeaketa jasangarria eta saneamendua bermaturik.
- 7. GJH.** Energia denentzat egon behar da eskuragarri; prezioz arrazoizkoa izan behar du, jasangarria eta modernoa.
- 12. GJH.** Kontsumitzeko eta ekoizteko modalitate jasangarriak bermatu behar dira.
- 13. GJH.** Klima-aldaketari eta haren eraginei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.
- 14. GJH.** Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian kontserbatu eta erabiltzea, betiere garapen jasangarria helburu.
- 15. GJH.** Irauteko moduan kudeatzea basoak, basamortuei zabaltze-bidea moztea, lurren endekatzea geldiaraztea eta alderantzizkatzea, biodibertsitatearen galera geldiaraztea.

Garapen jasangarri sozialari, berriz, GJH hauek dagozkio:

- 1. GJH.** Pobreziari amaiera ematea bere adierazpen guztietan mundu osoan.
- 2. GJH.** Gosearekin amaitzea, elikadura segurtasuna amaitzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea.
- 3. GJH.** Bizitza osasuntsua eta ongizatea bermatzea adin guztietan.
- 4. GJH.** Hezkuntza inklusibo, ekitatibo eta kalitatezkoa bermatzea eta ikasteko aukerak sustatzea guztientzat eta adin guztietan.
- 5. GJH.** Genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea.
- 8. GJH.** Hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegua, enplegu produktiboa eta lan duina ere.
- 10. GJH.** Herrialdeen arteko zein herrialdeen barneko desberdintasunak murriztea.
- 16. GJH.** Gizarte bidezkoak, baketsuak eta inklusiboak sustatu behar dira.

⁴ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/development-agenda/>

⁵ https://www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=A/RES/70/1&Lang=S

Eta, beste hauek, garapen jasangarri ekonomikoaren GJHei dagozkie:

8. GJH. Hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegua, enplegu produktiboa eta lan duina ere.

9. GJH. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria sustatzea eta berrikuntza bultzatzea.

10. GJH. Herrialdeen arteko zein herrialdeen barneko desberdintasunak murriztea.

11. GJH. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.

12. GJH. Kontsumitzeko eta ekoizteko modalitate jasangarriak bermatu behar dira.

16. GJH. Gizarte bidezkoak, baketsuak eta inklusiboak sustatu behar dira.

Azkenik, 17 GJH dago, aurreko guztien zeharkakoa. Aliantzak sortzeari buruzkoa da, beharrezkoak izango baitira ezarritako helburuak ahalbidetzeko:

17. GJH. Garapen Jasangarrirako Munduko Aliantza suspertzea.

OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE




**GARAPEN
JASANGARRIRAKO
HELBURUAK**

Europar Batasuna eta Europako Itun Berdea

2019ko abenduaren 11n⁶ Europako Itun Berdea onartu zen. Asmoa zen EB ekonomia modernoa bihurtzea, baliabideen erabilera eraginkorra, eta lehiakorra, hartara:

- 2050ean, berotegi-efektuko gasik isur ez dezan (kantitate netoetan).
- Hazkunde ekonomikoa eta baliabideen erabilera bereizita egon daitezen.
- Atzean ez dadin geratu ez pertsonarik ez lekurik.

Eta, horretarako, badu helburu nagusi bat: munduko lehen kontinente klimatikoki neutrala izatea, Parisko akordioan ezarritako irizpideei erantzunez. Horrek esan nahi du sortzen dituen CO₂ emisioak xurgatzeko gai den lehen kontinentea izatea 2050erako. Bide horretan, EBren asmoa da ekonomiaren sektore guztiak erronkari aurre egiteko moduan egotea.

Europako Batzordeak badu tarteko helburu bat ere, alegia, hitz eman du gutxienez % 55 murriztuko dituela berotegi-efektuko gasen isurketak, erreferentzia modura 1990eko balioak harturik (murrizketa netoa). Eta, bide horretan aurrera egiteko, 2021eko uztailean neurri-sorta bat aurkeztu zen: horratx 55. helburua. Zer den? Proposamen- eta ekimen-multzo bat, EBren legeria berrikusteko eta eguneratzeko; azken batean, legeria hori Europar Batasunaren 2030 eta 2050 helburu klimatikoetara egokitzeke.

Ekimen horiek hainbat eremu ukitzen dute, hala nola klima, ingurumena, energia, garraioa, industria, nekazaritza eta finantza jasangarriak, baina sektore guztiak bata besteari estu lotuta hartzen dituzte. Proposamen-sortaren helburua esparru bat zedarritzea da, haren barruan, gero, EBren klima-helburuak erdiesteko.

Esparru horretan:

- Bermatu beharko da trantsizioa ekitatiboa eta sozialki bidezkoa izango dela.
- EBko industriaren berritze-indarra eta lehiakortasuna mantendu eta areagotu egin beharko dira hirugarren herrialdeetako operadore ekonomikoekiko.
- Euskarri modura ere balio behar du, EB aurrerantzean ere denen buru izan dadin klima-aldaketaren aurkako borroka mundu mailakoan.

Euskadi: Basque Green Deal eta Ekonomia Zirkularren Estrategia

2021eko maiatzaren 12an, Europako Itun berdearekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzak ibilbide-orri bat aurkeztu zuen, hari jarraituz etorkizun jasangarriagoa lortzeko. Ibilbide-orri hori Basque Green Deal (BGD)⁷ da. Emisioak murrizteko eta energia berriagarria sortzeko helburuak han datoz jasota, industria eta teknologiarekin osatuta, haiek baitira aldaketarako palanka nagusiak. Horretarako, begi aurrean zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa eta elikatzeko-katea harturik, arlo horien guztien garapen bidezko eta jasangarria ildo bakar batean bildu nahi dugu.

Lehia-eredu berriak arau-testuinguru berria eskatzen du, eta, horretarako, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea ari gara lantzen, Europako zuzentarauen eta adierazleen norabide berean.

⁶ https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip_19_6691

⁷ <https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/68912-basque-green-deal-modelo-vasco-para-desarrollo-economico-justo-sostenible>

Ihobe eta Ekonomia Zirkularra

Euskadik, ingurumena, industriarekin eta gizartearekin esku hartuta ikusten du; horretan, erreferentea izan da eta orain ere hala da. Ihobe erakunde publikoak 20 urte baino gehiago darama horrelako ekintzak lantzen eta sustatzen, ekodiseinuarekin hasi, eta, gaur egun, ekonomia zirkularra eta ekonomiaren deskarbonizazioa bultzatuz.

2000. urtetik hona, euskal ekonomia % 26 hazi da; baina materialen kontsumoa % 25 murriztu da, eta zabortegean amaitzen duten hiri-hondakinen bolumena, berriz, % 56 mehetu da. Sustatu diren ekonomia zirkularrerako neurriei esker, esan daiteke gure ekonomia ari dela askatzen material-kontsumotik eta hondakin-sorkuntzatik.

Bestalde, euskal ekonomiak ekarpen handia egiten dio ekonomia globalaren zirkulartasunari; izan ere, inportatzen ditugun materialen % 18,1 -erregai fosilak kontuan hartu gabe- hondakin-materialak dira, alegia, berriro aprobetxatu, eta atzera merkatuan sartzen ditugu.

Gure lurraldean ekonomia zirkularra lantzen jarraitzeko, Ihobek "Euskadiko Ekonomia Zirkularraren 2030 Estrategia"⁸ dokumentua garatu eta argitaratu du. Dokumentu horretan, bederatzi erronka nagusi zehazten dira:

- 1.** Saia gaitezen negozio-eredu berri zirkularragoak sortzen.
- 2.** Berritu ditzagun materialak (aurreratuak eta berriztagarriak), prozesuak eta produktuak.
- 3.** Luza dezagun produktuen balio-bizitza.
- 4.** Lehengai gutxiago kontsumitu eta hondakin gutxiago sortu.
- 5.** Kontsumo-eredu zirkularragoa sustatu.
- 6.** Elikagai gutxiago xahutu.
- 7.** Plastikoen erabilera eraginkorragoa sustatzea.
- 8.** Handitu dezagun hondakinen berrerabilpen-, birziklatze- eta berreskuratze-tasa.
- 9.** Erabil dezagun bigarren mailako lehengai gehiago.

Ekonomia zirkularraren estrategiatik begiratuta, "Europa osoan Euskadi ekonomia zirkularrerako erreferentziatzeko eskualde izatea nahi dugu, bertan, ingurumena funtsezko faktore bihurtuko da jasangarritasunerako, lehiakortasunerako, enplegua sortzeko eta hazkunde ekonomikorako, eta ez da loturik egongo baliabide naturalen kontsumora, hondakinen sorkuntzara eta berotegi-efektuko gasen isurketara."

⁸ https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/economia_circular/es_def/adjuntos/EstrategiaEconomiaCircular2030.pdf

2.

ZINEMA JASANGARRIA GAUR EGUN

Kapitulu honetan, zinemaren arloan jasangarritasuna zertan den azaldu dugu: ingurumenean duen eragina, sustapen-lanetan aitzindari diren erakundeak, gaur egun jasangarriritasun-irizpideak txertatzen dituzten laguntza-programak, zer tresnak garatu diren neurtzeko zer eragin duen ingurumenean, eta ekoizpenean laguntzeko garatu diren baliabideak.

2.1. ZINEMAK ZER INPAKTU SORTZEN DUEN

Euskadiko zinemagintza


Har dezagun Arteen eta Kultura Industrien Estatistika. Azken txosteneko datuen arabera, 2019an, ikus-entzunezko sektorean 75 ekoizle eta 54 zinema-areto zegoen. Urte hartan, ekoizleek, guztira, 177,67 milioi euroko diru-sarrerak izan zituzten; gastuak, berriz, 178,9 milioi eurokoak; eta 1.290,80 lagun eman zioten lana (lanaldi osoen baliokideak). Ikus-entzunezkoen euskal sektorean, diru-sarreraren % 72,6 EITBetik dator, eta enplegu guztiaren % 49,9 ere hark sortzen du (2017ko datuak); bada zer edo zer.

| Ikus-entzunezko sektoreko ekoizleen estatistikak. 2019ko datuak. ⁹ | |
|---|--------------------|
| Ekoizleen diru sarrerak | 177,67 milioi euro |
| Ekoizleen gastuak | 178,9 milioi euro |
| Langileak | 1.290 lagun |
| Emakume langileak | % 43,2 |
| Zenbat ekoizpen euskaraz | % 39,8 |

⁹ <https://www.euskadi.eus/observatorio-vasco-cultura/estadisticas/-/estadistica/estadistica-de-las-artes-e-industrias-culturales-en-la-cae-2019/>

Zenbat emisio eragiten ditu 20 milioi dolarreko fikzio-film batek? ¹⁰

Sustainable Production Alliance (2021).



2019an, EITB ere kontuan hartuta, ikus-entzunezkoen % 39,8 euskaraz ekoitzi zen. EITBren ekoizpenak zenbatu gabe, euskarazko ekoizpenaren ehunekoa %34,3koa da.

Azkenik, gizon-emakumeen berdintasunari dagokionez, 2019an, ikus-entzunezkoen sektoreko langileen artetik, % 43,2 ziren emakumeak.

Ingurumen-inpaktua


Zinemaren industriak proiektuka edo produkzioka lan egiten du. Film luzeak egiteko, prozesu osoa hasi eta bukatu, lau bat urte behar izaten dira: garapena, aurre-produkzioa, filmaketa, postprodukzioa, eta banaketa. Etaparik biziena eta gogorra filmaketa da, aste batzuetan hasi eta bukatu, hor joaten dira baliabide eta indarrak, eta, jakina, ingurumenak ere nozitzen du.

Gaur arte ez da kalkulatu Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreak berotegi-efektuko zenbat gas isurtzen duen. Momentuz, beste herrialde batzuetan egindako azterlanak dauzkagu, eta, aldeak alde, erreferentziatzat har daitezke arazoa ulertzeko eta puntu kritiko erkideak identifikatzeko.

2021ean, SPA edo Sustainable Production Alliance erakundeak txosten bat agindu zuen (talde hori PGA edo Producers Guild of America erakundeko estudio nagusiek osatzen dute), eta, han agertzen denez, Estatu Batuetan, 10 milioi dolarreko ikus-entzunezko produkzio batean, 391 CO₂ tona isurtzen dira; eta 70 milioi dolarretik gorako superprodukzio batean, 3.370 tona.

¹⁰ <https://www.greenproductionguide.com/wp-content/uploads/2021/04/SPA-Carbon-Emissions-Report.pdf>

—
Nagusiki kanpoan filmatutako fikzio-produkzio baten isurtzeak ¹¹
Albert annual report (2019-2020).



¹¹ <https://wearealbert.org/2020/09/29/our-2019-2020-annual-report-is-out/>

Bestalde, Albert zigilu berdearen 2019-2020 txostenaren arabera, Erresuma Batuan, telebistarako fikzio-produkzio batek, nagusiki kanpoan filmatuta, 24 CO₂ tonako karbono-aztarna sortzen du fikzio-ordu bakoitzeko. Azkenik, Euskadin, isurtzeak urtean batez beste 8,4 tonakoak dira biztanle bakoitzeko.¹²

Aurreko erreferentziak erabiliz, eta datuak gutxi gora-behera gurera moldatuta, zenbatets daiteke 2 milioi euroko aurrekontua duen fikziozko film luze batek 50 eta 90 CO₂ tona arteko karbono-aztarna izango lukeela, hau da, Euskadiko pertsona baten 6 eta 8 urte arteko isurketak.

Gainera, bi txostenak bat datoz honako puntu hauetan:

- Isurtzeen iturri nagusia pertsona eta materialen garraioa da, eragin osoaren % 50 inguru baita.
- Isurtzeen bigarren iturri handiena kokaleku, plato eta produkzio-bulegoetan erabiltzen den energia da.
- Zenbat eta handiagoa izan ikus-entzunezko produkzio baten aurrekontua, orduan eta handiagoa izango da ingurumen-eragina.

Kontuan hartzen bada garraioa eta energia gehienbat erregai fosilen menpe daudela, ondoriozta daiteke horiek direla ikus-entzunezko produkzio baten karbono-aztarna handiena sortzen dutenak. Beraz, zinema-sektore jasangarriagoa lortzeko, lehentasuna eman behar zaio energia berriztagarrien erabilerari, baita energiaren aurrezpen- eta efizientzia-neurriei ere. Noski, ezin dira alde batera utzi materialen berrerabiltzea eta birziklapena, eta tokiko baliabideak lehenetsi behar dira.

2.2. EKIMENAK ETA ANTOLAKUNDEAK

Arlo honetan, aitzindariak, Erresuma Batua, Frantzia eta Estatu Batuak dira, bai, baina, azken urteotan, zinemagintzan nor badiren gainerako eskualdeak ere ari dira programa batzuk martxan jartzen jasangarritasuna zineman ere sustatzeko.

Nazioartekoak

Ikus dezagun sektore hau zertan dabilen nazioartean. Ekimen nagusien hautaketa bat egin dugu, batez ere Europara begira jarrita. Baina Euskadin orain arte zer egin den ere berrikusi dugu.

Ecoprod

Ecoprod 2009an sortu zen, Film Paris Region (garai hartan Ile-de-France Film Commission), Paris Region eta TF1-en eskutik. Ikus-entzunezkoen industriako eta zinemagintzako eragile nagusiek osatzen dute, garapen jasangarriaz kezkatuta. Besteak beste, Ekoprodukzioaren Gida eta Carbon Clap karbono-aztarnaren kalkulagailua garatu eta argitaratu ditu. Bi tresna horiek aitzindariak izan ziren Europa osoan, eta film commissions-ak (Malaga, adibidez) haietan oinarritu dira beren egokitzapenak egiteko. Ecoprod-ek, gainera, sentsibilizazio-prestakuntzak eta -ekitaldiak ere antolatzen ditu ikus-entzunezkoen ikasle eta profesionalentzat.

¹² https://www.eustat.eus/elementos/ele0017100/evolucion-de-la-ratio-de-emisiones-totales-de-gases-de-efecto-invernadero-per-capita-por-paises/tbl0017137_c.html

albert

Irabazi asmorik gabeko erakundea, Erresuma Batuko zinema- eta telebista-estudio nagusiek finantzatua, 10 urteko ibilbidea duena. Alde batetik, ikus-entzunezkoen industriei lagundu nahi die ekoizpenetik hondakinak eta karbono-isuriak ezabatzen; eta, bestetik, lortu nahi du industria gai izatea sortzen dituzten edukietan etorkizunaren ikuspegi jasangarria babesteko.

Besteak beste, albert ziurtagiri berdea ematen du, prestakuntza eskaini eta ekitaldiak antolatu. Gaur egun, nazioartekoak bihurtzeko prozesuan daude, eta haien zerbitzuetako batzuk Europako beste herrialde batzuetan ere badaude eskuragarri, baita Espainian ere.

Cineregio

Europako eskualdeetako zinema-erakundeen sarea da. EBko, Norvegiako, Suitzako eta Erresuma Batuko 49 erakundek osatzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura eta Hizkuntza Politika Saila ere barruan da. Denen artean, zinemagintzari laguntza eta zerbitzuak eskaintzeko plan batzuk kudeatzen dituzte, haien bidez "kultura zinematografikoa babesteko, gizarte-kohesioa sustatzeko eta eskualde-azpiegiturak sortzeko". Hau da, ekoizpenak erakarri nahi dituzte, eskualdean topa ditzaten kokalekuak eta egin dezaten filmaketa; helburu hori bera dute Cineregio osatzen dutenek.

Cineregio barruan, bada talde bat filmaketetako ingurumen-jasangarritasuna lantzen duena. 27 kidek osatzen dute, eta helburu hau dute: "...politika eta bitarteko jasangarriak sustatzea, ikusteko moduan; eta lortzea bideragarriak izatea zinemagintzarentzat, telebistarentzat eta haien finantzazio-erakundeentzat. 2020an, Zinema Jasangarriaren aldeko Manifestu bat argitaratu zuen. Bertan, erakunde kideek hitz eman zuten Green Film sistema hartu eta erabiliko zutela ziurtagiri berde erkide gisa. Helburua bikoitza da: eskualde guztietan ekoizleei lana erraztea; eta zigilu berde erkide bat edukitzea, Europa guztiko erakunde publikoek euskarri modura erabil dezaten, zinemagintzari laguntzeko irizpideetan.

Cineregioko kide nabarmenetako bat **Trentino Film Commission** da. Haren ardura da Green Film kalifikazio-sistema diseinatu eta garatzea (gaur egun film office-en eta nahi duen erakunde ororen eskura). Gainera, aldian-aldian prestakuntza-saioak antolatzen ditu profesionalentzat, asmoa izanik sektoreko profesionalak ziurtapen berdearen prozesuan trebatzea, eta zinema jasangarria indartzeko praktika egokiak zabaltzea.

Green Screen – Interreg Europe

Green Screen ekimena EBko Interreg Europe programak finantzatu zuen, Eskualdeak Garatzeko Funts Europarretik. Zinemagintzak Europan sortzen duen karbono-aztarna murrizten laguntzea da helburua, ikus-entzunezko ekoizpenetan aplikatzen diren neurri jasangarriak hobetuz eta estandarizatzuz. Proiektua 2017 eta 2021 artean garatu zen. 8 bazkide zituen, besteak beste: Promálaga (Espainia), Film London (Erresuma Batua), Flandriako Ikus-entzunezko Funtsa (Belgika) edo France Film Commission (Frantzia).

Garatu dituzten proiektu batzuk oso oihartzun handia ari dira izaten, eta jarraipena izango dute, adibidez, Eureka-k, aztarna kalkulatzeko Europa osorako kalkulagailuak; eta Grid Project-ek, sare elektrikoaren bidez Londresko kokalekuetara energia berdea eramateko sistemak.

Producers Guild of America

Producers Guild of America (PGA) izan da Green Production Guide (GPG) gehien bultzatu duena. Estatu Batuetan tresna hori izan da erreferentzia, zinemaren eta telebistaren industrian ingurumen-inpaktua murrizteko. 2010ean sortu zen, Sustainable Production Alliance (SPA) delakoan elkartuta zeuden estudio handi batzuekin batera lankidetzan.

GPGk batez ere hiru tresna eskaintzen ditu jasangarritasuna zaintzeko: Production Environment Accounting Report (PEAR) karbono-kulagailua; PEACH, edo PGAREN Zigilu Berdearen kalifikazioetarako jardunbide egokien zerrenda; eta PLUM, edo egurra darabilten produkzioei buruzko lan-fitxa. Hiru tresna horiek kalkulu-orri batzuetan oinarritzen dira; txantiloak Interneten daude, doan.

Ikus ditzagun nazioartean nabarmentzekoak diren beste ekimen eta erakunde batzuk:

- **Ekosetti** (Finlandia)
- **Evergreen** (Austria)
- **Green Film Shooting** (Alemania)
- **VAF / e-Mission** (Bélgica)
- **Film London Agency – Green Screen**

Nazioarteko plataformak

Netflix, HBO, Amazon edo Disney bezalako plataformek iragarria dute badutela asmoa beren ekoizpenetan jasangarritasun-protokoloak txertatzeko. Netflixek, adibidez, jada eman du argitara -azterlan baten bidez- bere streaming zerbitzuak ingurumenean zer eragina sortzen duen eta zer helburu dituen emisioak murrizteko. Eta Amazon Españak, berriz, lan egiteko darabiltzan ekoizle batzuei eskatu die erabil ditzatela Green Production Guidek eskainitako tresnak: PEAR kalkulagailua eta PEACH jardunbide egokien zerrenda.

Estatua

Jarraian, ikus ditzagun Espainian zinema jasangarria bultzatzen dabiltzan erakunde eta ekimen nabarmenak.

Canary Islands Films/ Tenerife Film Commission

Kanariak 2018az geroztik ari dira lanean ikus-entzunezko ekoizpen berdeen arloan, batez ere Tenerife Film Commission. Darabiltzan ekimenen artean, aipa ditzagun zinema eta animazioa ekoizten duten enpresentzako eta hornitzaileentzako prestakuntza-saioak, eta ziurtapen berderako programa pilotua.

Mallorca Film Commission

Mallorca Film Commission-ek hainbat ekimen bultzatu du hango ikus-entzunezkoen sektorean jasangarritasun-neurri batzuk txertatzeko. Lantegi horretan, Illes Balears Film Commission-a izan du lagun, eta, batez ere, Balearretako Gobernua. Besteak beste, ekoizpen ekologikoari buruzko tailerrak antolatu ditu, eta Green Film ziurtapen-sistemara bildu da.

Promálaga/ Málaga Film Office

Promálaga enpresa Malagako Udalarena da, enpresak sustatzeko, enplegua sortzeko eta talentua erakartzeko sortua. Green Screen Europako proiektuaren barruan, Europako karbono-aztarnaren kalkulagailua garatzeaz arduratu da: Eureka. Málaga Film Office-rekin eta Malagako Jaialdiarekin lankidetzan, hainbat jarduera antolatzen du, hala nola ikus-entzunezko ekoizpen jasangarriari buruzko prestakuntza-jardunaldiak eta sentsibilizazio-kanpainak.

Academia de Cine

Academia de las Artes y las Ciencias Cinematográficas de España delakoa irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Zinemagintza barruko espezialitateetan diharduten profesionalek osatzen dute. 2021. urtearen amaieran, Guía de Buenas Prácticas del Sello Verde aurkeztu zuen, hots, argibide-multzo bat, zinemagintzari karbono-aztarna murrizten laguntzeko. Oraingoz, lan-eta elkarrizketa-taldeak sustatu nahi ditu ikus-entzunezkoen sektorean diharduten pertsona eta erakundeen artean, zinema jasangarriaren ekoizpen aldera egiteko.

Euskadi

Euskadin ere abiarazi dira zinema jasangarria bultzatzeko lehen ekimenak. Gasteizko Udalak eta Donostia Film Commission-ek ekin diote, 2021ean.

Vitoria-Gasteizko Udala

Euskadin, Gasteiz aitzindaria da jasangarritasun-baldintzak txertatzen. Ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko (fikzioa, animazioa, dokumentalak eta serieak) eta gidoiak idazteko laguntzetan, 2021ean hartu ziren lehen aldiz aintzakotzat. Zehazki, Jasangarritasun Plan Estrategiko baten bidez (2 puntu balio zuen), azaldu behar zuten ea proiektuan zer egingo zuten jasangarritasunaren alde.

Film Office-k, gainera, plan hori egiteko oinarritzko tresna batzuk eskaintzen ditu: Jardunbide Egokien Gida, eta Karbono Aztarnaren Kalkulagailu bat. Biak ere Promálagak eta Málaga Film Office-k eskaintzen dituztenetan oinarrituta daude. Azkenik, jardunaldi batzuk antolatu dira, ikusteko berritik zer dagoen zineman eta jasangarritasunean (biak batera harturik).

Donostia Film Commission

Donostiako office filmak ere, 2021ean, bultzatu zituen ekimen batzuk sektorearen jasangarritasunaren alde. Besteak beste, ikus-entzunezkoen ekoizpen jasangarri-rako dekalogo bat egitea, bertako ekoizleekin lankidetzan.

2.3. BALIABIDEAK ETA TRESNAK

Zigilu berdeak

Zigilu berdea kalifikazio-sistema bat da, ziurtatzen duena ikus-entzunezko produkzio batek betetzen dituela neurri aurretiaz ezarri batzuk. Zigiluaren arabera, Neurri horiek eta egiaztapen-prozesua ezberdin definiturik daude zigilu batean eta bestean. Normalean, kasu bakoitzean, erakunde batek irizpideak definituko ditu, beste batek hautagaiei zigilua eskatu die, ekoizpen-etxe batek eskaria egingo du, eta beste erakunde batek egingo ditu egiaztapen-lanak. Askotan, ekoizpen-etxeari aholkularitza-enpresa espezializatu batek laguntzen dio hartu beharreko neurriak diseinatzen eta ezartzen.

Zinemagintzako hainbat erakundek bultzatu ditu zigilu berdeak zinemaren sektorerako.(eskualdeetan eta estatuetan) Gaur egun, European, Green Film eta albert dira garrantzitsuenak. Nazioartean badira beste aipagarri batzuk; Film Londonek, adibidez, Green Screen zigilua ematen du, eta PGAk, berriz, EMA Green Seal saria (Producers Guild of America).

albert certification

albertek ziurtapen-sistema automatizatu bat eskaintzen du, online. Ikus-entzunezko produkzio jasangarrietarako balio du, eta bi tresna ditu: Carbon Footprint (karbono-aztarnaren kalkulagailua) eta Carbon Action Plan (neurri jasangarrien multzoa).

Erresuma Batuko telebistan oso zabalduta dago, estudio nagusietan derrigorrezkoa baita. 2021ean beste hizkuntza batzuetara itzuli da, besteak beste gaztelaniara, hartara Europa osoan zabaldu ahal izateko. Gainera, albert plataforma webinar-ak antolatzen aritzen da etengabe, zinema- eta telebista-ekoizleentzat. Gaiak, bi: jasangarritasunaren garrantziaz jabetzea, eta online aplikazioa erabiltzeko prestakuntza. Gaur egun, albert egiaztapen-prozesu guztiaz arduratzen da, eta ez du kosturik ekoizleentzat.

Funtzionamendua

Filmatzen hasi aurretik

- Online kalkulagailu baten bidez, ekoizpen-etxeek, aurretiaz ekoizpenak ingurumenean zer inpaktu duen kalkulatzeko, CO₂ tonatan (Carbon Footprint).
- Ekoizpen-etxeek adierazita utzi behar dute ea ingurumenaren alde zer egingo duten ekoizpenak dirauen bitartean (Carbon Action Plan).

Filmaketan zehar

- Hitzeman dituen neurri horiek bete egin behar ditu ekoizpen-etxeak.

Filmaketaren ondoren

- Ekoizleak Carbon Footprint bete behar du, ekoizpenari buruzko benetako datuekin.
- albertek dokumentazioa eskatuko du, Plana betetzen dela egiaztatzeko. Planaren 10-15 item.
- Ekoizpen-etxeak dokumentazioa aurkezten du, egiaztatu ahal izateko.
- albertek dokumentazioa aurkezten du, egiaztatu ahal izateko.
- Egiaztapena positiboa bada, produkzioak albert ziurtagiria jasoko du.

Green Film certification

Zinema jasangarriaren ekoizpenerako kalifikazio-sistema, Trentino Film Commissionek garatua. Ekoizpen baten jasangarritasun-faktore nagusiei begiratzen die (energia-eraginkortasuna, garraioa eta ostatua, janaria, materialen hautaketa, hondakinen kudeaketa eta komunikazioa), eta ekoizpen-etxeei neurri praktiko batzuk eskaintzen dizkie, denak ere egiazta-errazak.

Oro har, Green Film erraz ulertzen eta erabiltzen da, irizpideak garbi daudelako, eta nola justifikatu behar diren ere argi dagoelako. Oraingoan, ez du karbono-aztarnaren kalkulagailurik, baina pentsatuta daukate Eureka proiektuarekin koordinatzea.

Green Film, egungo bertsioan (bigarrena), tresna bete-betekoa eta irekia da, beste erakunde batzuek berentzat hartzeko modukoa, edo, are, ekoizpen-etxeek beren kasa ere erabil dezakete beren buruak egiaztatzeko. Gaur egun, Italian, Danimarkan, Norvegian eta Belgikan ere badarabilte, ekoizpen zinematografikoari laguntzeko programetan. Eta datozen urteetan beste asko ere hasiko dira erabiltzen; ikus-entzunezkoak garatzeko eta ekoizteko darabiltzaten laguntza-programetan txertatzen joango dira pixkanaka.

Trentino Film Commissionek dio hobe dela egiaztatze-prozesua tokian tokiko eskualdeko erakunderen batek egitea, ekoizpen-etxeei kosturik eragin gabe; erakunde horrek, jakina, jasangarritasun eta ingurumen-arloan eskuduna izan beharko du. Bada, hala ere, beste aukera bat, alegia, lankidetzarako hitzartuta daukagun egiaztapen-erakunde pribatu batek egitea egiaztapena.

Funtzionamendua

Filmatzen hasi aurretik

- Ekoizpen-etxeek adierazi behar dute GREEN FILMen zer jasangarritasun-irizpide beteko dituzten.
- Ekoizpen-etxeek aurretiazko ezinbesteko dokumentuak aurkezten dituzte: Jasangarritasun Plana eta Garraio Plana.

Filmaketan zehar

- Hitzeman dituen neurri horiek bete egin behar ditu ekoizpen-etxeak.
- Erakunde egiaztatzaile batek irizpideak betetzen diren egiaztatuko du.

Filmaketaren ondoren

- Ekoizpen-etxeak dokumentazioa aurkezten du, egiaztatu ahal izateko.
- Erakunde egiaztatzaileak dokumentazioa berrikusi egiten du.
- Egiaztapena positiboa bada, ekoizpenak GREEN FILM ziurtagiria jasoko du erakunde egiaztatzailearen eskutik.

Gidak

Gidak formatu desberdinetan eginda egon daitezke, baina denek ere irizpide orokorrak eta neurri zehatzak eskainiko dituzte, ikus-entzunezko produkzio jasangarriagoak egiteko. Batez ere oinarri bat eskaintzen dute, hartatik abiatu jasangarritasun-planak egiteko, eta, gero, plan horien ezarpena kudeatzeko.

Askotan, arloka egongo dira antolaturik (energia, bidaiak, ostatua, janaria, materialak, hondakinak, etab.), faseka (aurreproduzioa, filmaketa eta postproduzioa) edo sailka (ekoizpena, argazkia, artea, jantziak, etab.).

Europa osoko film office direlakoek eta erakunde publikoek geroz eta gida gehiago argitaratzen dituzte produkzio jasangarrietarako. Bakoitzak araudiaren edo tokiko baliabideen berezitasunak gehitzen ditu, baina, oro har, ez dago alde handirik haien artean. Jarraian, gaztelaniaz eskuragarri dauden garrantzitsuenak aurkeztuko ditugu:

- **Guía de rodaje sostenible**
Promálaga/ Málaga Film Office (Ecoprod-en originalean oinarrituta).
- **Guía de buenas prácticas en la producción audiovisual**
Barcelona Film Commission
- **Guía para la incorporación de criterios de sostenibilidad a las filmaciones y los rodajes**
Catalunya Film Commission

Kalkulagailuak

Ikus-entzunezko produkzio batek zenbat karbono jaulkitzen duen kalkulatzeko balio dute (CO₂ tonak), ekoizpen-etxeek sartzen dituzten datuetatik abiatuta (adibidez: erabilitako energia, erabilitako erregaia edo hegazkinez egindako bidaiak). Hartara, erreferentzia-puntu bat izango dugu, ekoizpen jakin batean neurri batzuk hartzeko, baina baita etorkizunerako ere.

Ustez, kalkulagailuak erabiltzea lagungarria da sektorea jasangarritasunaren beharraz jabetu dadin: irizpide batzuk ematen ditu gero neurriak hartzeko; eta, datuak bildu behar dituztenez, enpresa hornitzaileak engaiatu eta sentsibilizatu egiten dira. Batzuetan, produkzio bakar batean, zer kalkulagailu erabili, inpaktuaren emaitza ezberdina omen da. Hori aurpegiratu izan zaie, baina horrek ez die erabilgarritasunik kentzen: garrantzitsuena baita neurri espezifikoak hartzea arazoa arintzeko, eta neurrian jarraipena egitea.

Eskualde eta nazioetako erakunde batzuek kalkulagailu ugari eskaintzen dituzte, sareko plataformetan edo kalkulu-orrietan oinarrituta. Hauek dira garrantzitsuenak eta finkatuena:

- **albert**
Erreferentziazko kalkulagailua, albert zigilu barruan kokatua. Gaztelaniaz ere badago.
- **PEAR**
PGAk garatua. Excel formatuan. Ingelesez.
- **Carbon Clap**
Eco-Prod-ek garatu du. Frantsesez.
- **Eureca**
Etorkizunean Europa guztian aplikatu ahal izango da (garatzen ari dira).
- **Promálaga/ Málaga Film Office**
Ecoprod-en kalkulagailuan oinarrituta dago, Excel formatuan.

2.4. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK ESKATZEN DITUZTEN LAGUNTZA- PROGRAMAK

Zinema ekoizteko ematen diren laguntza garrantzitsuei begira jarrita, ikusiko dugu atzetik dauden erakundeetako batzuk 2021 ean hasi zirela, poliki-poliki, jasangarritasun-irizpideak eskatzen. Oraingoz, ekoizpenak baloratzeko orduan, hainbeste item arteko beste bat da jasangarritasun-neurriena, baina ustea da etorkizunean nahitaezko baldintza izango dela.

Europa Creativa Media

Apurka-apurka, Europa Creativa programako laguntza-deialdietan ingurumen-irizpideek geroz eta garrantzi handiagoa dute. Har ditzagun, zehazki, European co-development, European mini-slate development eta European slate development laguntzak. Bada, 2021. urtean, 5 punturekin baloratu zen "Aurkeztutako estrategiak egokitzea, bermatzearren industria jasangarriagoa izango dela eta hobeto zainduko duela ingurumena".

ICAA

Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua (ICAA) jasangarritasun-irizpideak sartzen hasi da pixkanaka bere deialdietan. Zehazki, film luzeak ekoizteko 2021eko laguntza orokorretan, lehenengo aldiz puntu bat eman zitzaien baldintza hau betetzen zuten ekoizpenei: "sistemaren bat edukitzea, proiektuaren ingurumen-inpaktua eta karbono-aztarna neurtzeko eta erregistratzeko".

2022an jada, film luzeak proiektuetan oinarriturik ekoizteko laguntzetarako deialdietan, ICAAk erabaki du proiektu eskatzaile guztiek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dutela, hitz emanez proiektuak sistema bat izango duela erantsita, ingurumen-inpaktua neurtzeko eta erregistratzeko eta karbono-aztarna murrizteko. Eta laguntza irabazten badute, obra kalifikatzeko unean, agindutakoa bete dutela ziurtatu beharko dute, derrigor.

3. EUSKAL SEKTOREAREN IKUSPEGIA

Aurretiazko diagnostiko-prozesuaren zati gisa, Euskadiko zinemagintzak zer pentsatzen duen jakin nahi izan dugu. Horretarako, 2021eko udan, elkarrizketa batzuk izan genituen -lagun artean ia-, Euskadiko ekoizpen-etxeetako arduradunekin, eta alor hauetan eskarmentu daukaten profesional batzuekin: ekoizpen exekutiboa, produkzio-zuzendaritza eta produkzio-buruzagitza.

Parte-hartzaileak

Nahikari Ipiña **Sayaka**
Carlos Juárez **Basque Films**
Iker Ganuza **Lamia Producciones**
Luis de Oza **Kinoscopic**
Pako Ruiz **Sonora Estudios**
Katixa de Silva
Mikel Huércanos
Xabier Berzosa **Irusoin**
Izaskun Arandia **Izar Films**
Marian Fernandez **Txintxua**
Leire Apellaniz **Señor & Señora**
Ricardo Ramón **Dibulitoon**
Miren Berasategi **Lotura**
Iván Miñambres **UniKo**
Zuri Goikoetxea **Doxa Producciones**
Idurre Cajaraville **Baleuko**
Koldo Zuazua **Kowalski Films**
Joxe Portela **Abra Producciones**
Ainhoa Blanco **Pausoka**
Luca Ferrario **Green Film**
Linnea Merzagora **Green Film**

Elkarrizketa-gaiak, honako hauek: sektorea oro har nola dagoen, filmaketetan ingurumenari nola eragiten zaion, laguntza-programetan erabiltzen diren balorazio-irizpideak eta zinemagintzaren etorkizun jasangarria. Ekoizleen iritzia entzun-jaso ondoren, Euskadiko Zinema Jasangarriaren Estrategian txertatuta utzi dugu, bai ikuspegian bai plangintzan.

Ikus dezagun elkarrizketa haietan bildu ziren ideia nagusien laburpen bat, eta esan zizkiguten gauza batzuk, hitzez hitz hartuta.

| Jasangarritasuna gaur | Hautematen diren oztopoak |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Azken urteotan jasangarritasuna presenteago dago • Badago gogoia eta kezka kokapenak zaintzeko • Aurrerapen teknologiko berriek jasangarritasuna hobetzea eragin dute • Egin berri dira egokitzapen batzuk, | <ul style="list-style-type: none"> • Ez dago kontzientziazio orokorrik • Irudipena da kostu eta lan gehiago dakarrela • Ez da erraza lan-taldeek ohiturak aldatzea • Aukera edo irtenbide gutxi dago premia |
| Trantsizioaren gakoak | |
| <ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko estandarra, egiaztatzeko modukoa • Jasangarritasun planifikatua, eta efizientzia ekonomikoa • Denon ardura eta balioak • Hurbileko adibideak eta erreferenteak | |

3.1.

JASANGARRITASUNA GAUR

Jasangarritasuna hizpide, sektoreak gauza batzuetan iritzi ona edo baikorra du. Arrastoak dira, hari-puntak, etorkizunean haiei tiraka egiteko Euskadiko ikus-entzunezko industriaren trantsizio jasangarria. Ikus ditzagun.

Azken urteotan jasangarritasuna presenteago dago

Zinema ekoizten duten enpresek, oro har, uste dute geroz eta gehiago hitz egiten dela jasangarritasunaz eta ingurumenaren gaineko eraginaz; horretan ados daude. Azken 5 urteetan, hasiak dira zenbait neurri ikusten, hala nola erabilera bakarreko botilak kentzea. Baina, orain arte, ekintza horietako gehienak ekoizle-etxe bakoitzak bere kasa erabakita etorri dira, lehen-tasunak eta konponbideak inprobisatuta. Gehien-gehienetan, filmaketan hondakin eta zabor gutxiago sortzea izan da asmoa.

“Me ponía enferma ver la cantidad de botellines de agua desperdigados por el set”

Gogo eta kezka handiagoa dago kokapenak zaintzeko

Oro har, inon argiago ikusten baldin bada ingurumenari kalte egiten zaiola eta badagoela zer hobetu, kokalekuetako filmaketan da. Ez da garbitasuna bakarrik, baita zarata ere, auzotarrak gogaitzea, edo natura lehen bezala ez uztea.

“Somos como un ejército, pero no podemos arrasar por donde pasamos”

Gainera, ekoizpen-etxeak jabetzen dira beraiei ere komeni zaiela kokalekuak zaintzea, zinemagintzak duen gauzarik baliotsuenetakoa baitira, eta denen artean erabili beharrekoak. Izan ere, Euskadi, bertan diren kokaleku guztiak batera hartuta, antzestoki “neutroa” izan daiteke edonolako ekoizpenetarako, estatuakoak izan edo nazioartekoak. Ildo horretan, ekoizpen-etxeek aitortzen dute Film Commission-ek lan ona egiten dutela kokalekuetan filmatzen laguntzeko orduan.

“Cada vez hay más flexibilidad y comprensión para rodar en el territorio”

Aurrerapen teknologiko berriek jasangarritasuna hobetzea eragin dute

Ikus-entzunezkoen sektorean, berrikuntza teknologikoak etengabeak dira. Berrikuntza horietako batzuek hobekuntzak ekarri dituzte filmaketen ingurumen-inpaktuan. Adibidez, LED lanparen garapenak nabarmen murriztu du argiztapen-ekipoen energia-kontsumoa. Beste kasu bat kamerena da, sentsoreek sentikortasuna asko hobetu baitute eta argiztapen artifizial gutxiago behar baita.

“ Hay casos en los que prescindimos de grupo electrógeno y funcionamos 100 % con baterías recargables”

Enpresa hornitzaile batzuek duela gutxi egokitzapenak egin dituzte

Lehenagotik dakartzagun lan-modu batzuk aldatu igual egin beharko dira; bada, ikus-entzunezkoen enpresa batzuek duela gutxi egin dituzte egokitzapen horiek. Efektu berezietako enpresak adibidez: araudiak segurtasun-neurri eta homologazio berriak eskatzen dizkiete, eta prozesu eta teknikak eguneratu egin behar izan dituzte. Edo horra hor argiztapen-enpresen ekipoen eguneraketa; edo catering-enpresak, orain erabilera bakarreko ontzi konpostagarriak erabiltzen baitituzte.

“ Recuerdo que antes la nieve se hacía con sal (que actúa como herbicida). Ahora se hace con productos inocuos”

3.2.

HAUTEMATEN DIREN OZTOPOAK

Zinema jasangarriagoa garatzeko bidean, sektoreak zailtasun batzuk aipatzen ditu. Oztopoak, batzuetan, agertzen dira aldaketak egin behar direnean enpresa eta profesionalen funtzionatzeko moduan. Beste zailtasun batzuk, berriz, euskal ikus-entzunezkoen industriaren beraren ahuleziak dira.

Ez dakigu nahikoa jasangarritasunari eta ikus-entzunezko produkzioari buruz

Gaia gero eta presenteago badago ere, oro har, inor gutxik daki zinema-ekoizpenak nola eragiten duen ingurumenean. Gainera, produkzioko tresnen artean, ez dago ezer finkaturik jasangarritasuna zaintzeko. Ez dago erreferente eta irizpide argirik langileen artean aplikatzeko eta transmititzeko; sektoreak badu horren falta. Hornitzaileekin nola jokatu ere ez dakigu oso ondo.

“Al principio, como jefe de producción, no lo veía claro: me resistí a sustituir botellines de agua por cantimploras personales”

Ez da erraza lan-taldean ohiturak aldatzea

Zaila da gauzak egiteko moduetan aldaketak sartzea. Filmaketetan presio handia izaten dute, eta, gaur egun, talde teknikoentzat jasangarritasuna ez da lehen-tasuna. Buruan "aurrera, aurrera" izaten dute, eguneko filmaketa-plana bete, eta ez da gutxi. Ez da beti erraza izaten taldeak, adibidez, hondakinak kudeatzeko plana betetzea.

“Tratamos de separar los residuos. La realidad es que no lo conseguimos”

Irudipena da kostu eta lan gehiago dakarrela

Oro har, ustea da “berdea” beti garestiagoa dela eta, beraz, produkzio orotan gainkostu bat eragingo duela. Bestalde, ekipamendu batzuen ordez beste eraginkorrago batzuk erabiltzeak ere inbertsio ekonomikoa eskatzen du.

“Me parece un puntazo contratar a alguien que te asesore, pero yo no puedo permitírmelo”

Ekoi-entxe txiki batzuek eta dokumentalean edo animazioan espezializatutakoek uste dute jasangarritasun-eskakizunak egokitu egin behar direla kasuan kasu. Halaber, uste dute agian baremo desberdinak aplikatu beharko lirakeela produkzioaren aurrekontuaren arabera.

“Una empresa grande puede hacer los planes que haga falta. Sin embargo, a una empresa pequeña le supone un tiempo que no tiene”

Aukera edo irtenbide berde gutxi dago premia tekniko batzuetarako

Irizpide orokorra da energia berriztagarrien erabilera lehenestea eta iturri fosilak murriztea, baina, benetan, sarri, ekonomikoki ez dago beste aukera bideragarriarik. Bai jendea bai materiala garraiatzeko orduan, gehienetan ibilgailu dieselak erabili behar izaten dira, mugikortasun elektrikoa ez dagoelako oso garatuta. Gainera, usu, nahitaezkoa da multzo elektrogeno dieselak erabiltzea; ez dago beste aukerarik. Eta, oraingoz, “izarrak” eta funtsezko teknikariak urrunetik datoz eta hegazkinez bidaiatzen dira.

“No conozco alternativas viables a los vehículos diésel: los eléctricos no entran en precio”

Bestalde, Euskadin, gaur egun, ez dago dekoratuak berrerabiltzeko zerbitzurik. Horrelako zerbitzuak bideragarriak izateko, ekoizpen-lan asko behar dira etorri, nahikoa eskaintza eta eskari sortzeko.

“El volumen de producción de Madrid posibilita que, por ejemplo, existan servicios de reutilización de decorados”

3.3.

TRANTSIZIO BERDERAKO GAKOAK

Elkarrizketatu ditugun eragileei galdetu diegu ea zer behar den sektoreak errazago egin dezan jasangarritasunerako bidea. Hona hemen aipatu dituzten lau gako:

Nazioarteko estandarra, egiaztatzeko modukoa

Enpresa ekoizleek irizpide eta protokolo argiak behar dituzte jasangarritasuna beren proiektuetan xertatzeko. Ziurtapen edo zigilu berde moduko tresna bat erabilgarria izango litzateke oinarri erkide batzuk ezartzeko. Alde horretatik, ona litzateke eskualdeak eta herrialdeak hobeto koordinatzea, koproduzioak erraztearren.

“Coproducir es clave para la viabilidad de mi productora”

Gainera, sistemak bidezkoa izan beharko luke, eta konpromisoak betetzen dituztenak saritu egin beharko lituzke. Beraz, kontrol-mekanismoren bat beharko da; ahal dela, ekoizpen-etxeei kosturik eragin gabe.

“¿Quién va a costear el sobrecoste de auditar las acciones de sostenibilidad realizadas?”

Jasangarritasun planifikatua, eta efizientzia ekonomikoa

Aurreproduzio-lana funtsezkoa da filmaketa jasangarriagoa izan dadin. Aurreikusita eta aurrekontuan jasota ez dagoenik nekez egingo da gero grabaketan. Adibidez, kokalekuak aurkitzeko lana: zenbat eta hobeto egin, orduan eta ezusteko gutxiago egongo da filmaketan: azken orduko erosketak, bidaia gehiago, etab.

“Si hay una buena preproducción se evitan los despilfarros y las compras absurdas”

Aurrekontuak hain daude estu doituak, ekoizpen-etxeek den-denean izan behar dute ikaragarri zorrotzak. Izan ere, filmaketetan, aurreztu nahian, arlo anitzetan “zorrotzago ezin” ibiltzen dira, langileen eta ekipamenduen garraioan, konparazio baterako; eta horrek ere balio du karbono-aztarna murrizteko.

“Hay medidas lógicas que también son ecológicas. Por ejemplo, utilizar personal técnico local”

Denon ardura eta balioak

Gaur egun, kontzientziazio-jarduerak eta -tresnak behar dira saileko arduradunentzat eta gainerako langileentzat. Talde teknikoa kontzientziazatuta baldin badago, balio batzuk denok baldin badauzkagu, samurrago iritsiko gara erantzukidetasunera eta errazago aplikatuko ditugu neurri zehatzak. Prestakuntza-zentroetan bertan hasi behar dugu arduraz jabetzen.

“A las personas que ya estamos concienciadas nos cuesta ser responsables. Así que imagina a las que no”

Produkzio-taldeak ezin du hornitzaile eta teknikari guztiekin hitz egin. Saisetako buruena da talde-kideei jarraibideak transmititzeko eta erosketa gehienak egiteko ardura.

“Es imposible tener medidas específicas para todo”

Hurbileko adibideak eta erreferenteak

Enpresek gustura jakingo lukete hurbileko zer produktiotan ezarri diren jasangarritasun-neurriak; hurbileko adibideen falta dute. Askoz hobe litzateke barrutik ezagutuko balituzte, ezarri dituzten profesionalek berek azalduta. Edo, erreferente bila hasita, ingurumen-arloan berrikuntzak egin dituzten enpresa hornitzaileek ere balio dute.

“Las medidas teóricas las conocemos. Lo que me gustaría saber es: ¿cómo ha sido tu rodaje?, ¿cómo habéis resuelto los problemas?”

4. IKUSPEGIA

Zinemagintzaren jasagarritasunaz eta zirkulartasunaz ari garen honetan, testuinguru orokorra eta sektoriala azaldu ondoren, erronka batzuk azaleratu dira. Erantzuna antolatzeko, helburu estrategiko argiak behar ditugu, eta etorkizunerako ikuspegia ere bai, datozen urteetan nondik nora jo jakiteko.

4.1. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Alegia, estrategikoki norantz jo behar dugun, ea epe ertainera iristen garen. Helburu estrategikoetan dago zehaztuta benetan zer den garrantzitsua zinema jasagarriaren estrategian, bai eta nola lortuko dugun ere, hots, ekintzak.

1

Zinema zirkular eta jasangarriaren ekoizpena bultzatzea

Azken urteotan, jasangarritasunaren eta ingurumen-irizpidearen hotsa gero eta ozenago entzuten da zinemaren sektorean. Edonola ere, orain arte, askotan, ekintzak nor bere kasa erabakita etorri dira; ezarri dira lehentasunak eta hartu dira konponbideak, baina sektorearekin koordinatu gabe.

Helburu hau erdietsi nahi badugu, jasangarritasun-irizpide argiak beharko ditugu, sektorearen errealtaterako egokituak eta egiaztatzeko modukoak, eta, egiaztatu, sistema zuzena eta bidezkoa erabiliz egiaztatu beharko dira, ekoizpen-etxeen ahaleginak aitortzeko beldurrik gabe. Aldi berean, zinema jasangarriko bide horretan, sektoreko enpresak eta profesionalak sentsibilizatu egin behar dira, lagundu egin behar zaie, pixkanaka geroz eta prestuago egon daitezen etorkizuneko ingurumen-eskakizunak betetzeko.

3

Euskadi zinema jasangarriaren erreferente bihurtzea

Ikus-entzunezkoen produkzio-eredua aldatu behar hori krisi modura ikus daiteke. Edo, aitzitik, aukera modura; aukera, munduko zinema-industrian Euskadi hobeto kokatzeko.

Helburu hau lortzeko, grabaketak erakartzeko moduko ingurumen-politika bultzatu behar da, Europako eta nazioarteko ekimenen ildo beretik erabat. Arauak, zergak eta zerbitzu-eskaintza taxutzeko orduan, gogoan izan behar da Euskadin filmatu nahi dutenei lana ahalik eta gehien erraztu behar diegula, eta ekoizpenetan inbertitzeko oztopoak ahalik eta gehien mugatu.

2

Berritu ditzagun ekoizpen-prozesuak eta haien eskutik doazen zerbitzuak

Gaur egun, zinemaren merkatua eta kontsumoa etengabe eboluzionatzen ari dira, neurri handi batean ekoizpen- eta banaketa-plataforma berriek eta berrikuntza teknologikoek bultzatuta. Zinema ekoizteko sistema, ordea, funtsean ez da hamarkadetan aldatu.

Helburu hau lortzeko, beharrezkoa da, alde batetik, eraldaketa digitala bultzatzea, eta, bestetik, enpresei laguntasuna ematea zerbitzuak eta negozio-eredua eraldatzen. Prozesu horretan, sektoreko enpresa ekoizle eta hornitzaileen arteko sinergiak sustatu beharko dira, negozio-aukera zirkularrak garatzeko eta enpresa bultzatzaileen ehuna hobeto josteko.

4

Lankidetzaren handiagoa behar da ikus-entzunezkoen sektoreko funtsezko eragileen artean

Zinema zirkular eta jasangarriaren erronkari aurre egiteko, ezinbestekoa izango da enpresa ekoizleak, zinemagintzako profesionalak eta erakunde publikoak inplikatzeko; bestela, jai. Beraz, eragile horien guztien lankidetzaren sustatu behar da, emaitza ez dadin izan ekoizpen jakin batzuen jasangarritasuna besterik ez, zinemagintza osoarena baizik.

4.2. JARDUTE-ILDOAK

Helburuak lortzeko, plan hau esparru jakin batzuetan eragiten saiatuko da: esparru horiek dira jardute-ildoak. Jardute-ildo horietako bakoitzean, lehenik, labur-labur, abiapuntua zein den deskribatu dugu; gero, etorkizunaren ikuspegi jasangarria azalduko dugu; eta, azkenik, gida moduko bat dator, datozen urteetan zer egin jakiteko. Batera hartzen baditugu jarduera-ildo guztiak eta dagozkien ikuspegiak, horratx Euskadiko zinemagintza norantz joango den etorkizun hurbilean.

Euskadiko Zinema Jasangarriaren 2022-2024 Estrategiak zuzeneko 4 jarduera-ildo dauzka, eta zeharkako beste 3. Hurrengo atalean, bitartekoak eta ekintza-programak zehaztu ditugu; haien bultzadak eramango gaitu etorkizun jasangarrira.

ZUZENKOAK

Berariaz zinemagintzara begira egiten direnak dira jarduera-ildo zuzenak. Plan honek haietan aurrera eginez izango du ahalmenik handiena ezertan eragiteko. Ekintzak -ekintza batzuk aurreikusitako baititugu etorkizuneko eszenatoki horiek egia bihurtzeko-bitarteko eta kanal batzuetan oinarritzen dira. Bitarteko-kanal horiek dagoeneko eraikita daudenez, errazago da ekintzak eraginkorrak izatea. Gainera, inplikatu behar diren funtsezko eragile gehienak zinemaren sektorearen parte dira orain ere, eta jasangarritasunarekin engaiatuta daude.



● Zinemaren ekoizpena

Zinema-ekoizleek egiten duten lana funtsezkoa da jasangarritasunaren alde ekiteko. Erabaki batzuk nolakoak, halakoa izango da filmaren ingurumen-inpaktua; bada, erabaki horietako gehien-gehienak garapen- eta aurreproduktzio-faseetan hartzen dira. Horregatik, ekoizpena bera eta ekoizpen-enpresek lehentasuna dute zinema jasangarriaren estrategian.

Ikuspegiak

Jasangarritasunaren aldagaia ohiko produktzio-prozesuan integratuta eta sistematizatuta egongo da, ikuspuntu estrategikoenetik hasi, eta praktikoeneraino. Fase guztietan (garapena, aurreproduktzioa, filmaketa, postproduktzioa eta banaketa), ingurumen-inplikazioak baloratzeko orduan, ez dugu ahaztuko faktore artistiko, tekniko eta ekonomikoekin koordinatuta egin behar dugula. Aldi berean, lantalde tekniko eta artistikoek berez barneratu ahal izango dituzte beren lan-prozesuetako praktika eta ohitura jasangarrienak.

Zinema-ekoizpenaren prozesuetan berrikuntza teknologikoak erabiltzea mesedegarria izango da sektoreko enpresa guztientzat. Era berean, produktzio-tresna berri horiek erabiltzen baditugu, zirkulartasunerako neurriak errazago koordinatuko ditugu ikus-entzunezkoen balio-kate guztian. Bien bitartean, Euskadiko zinema-sektorearen jasangarritasun-erronkei heltzeko orduan, funtsezkoa izango da enpresak eta erakundeak lankidetzan aritzea.

● Kokalekuak

Denak batera hartuta, Euskadik dauzkan kokalekuak dira, bai naturalak bai kalekoak, zinemagintzaren erakargarritasun eta balio berezirik handienetako bat. Erakargarritasun hori, gainera, leiho bat ere bada, euskal nortasuna, ondarea eta kultura munduan erakusteko.

Ikuspegia

Kokalekuak zaintzea zinemagintzaren gakoetako bat izango da, eta horretarako ardua, gainera zineman dabilzan eragile guztiena izango da, publikoak zein pribatuak izan. Kokalekuak zaindu egin behar dira, garbi eduki behar dira, baina bertan bizi den jendea ere ezin da ahaztu, eta natura ere ez.

Horrek esan nahi du beste faktore batzuk ere hartu behar direla kontuan, hala nola naturan eta nekazaritzan eragiten diren ondorioak, zarata, bizilagunekiko harremanak eta tokian tokiko ekonomiaren sustapena. Horretarako, erakunde eta zerbitzu publikoek ekoizpen-enpresekin koordinatuta jardungo dute, dena delako kokalekuan filmaketa egitea onuragarria izan dadin alde guztientzat.

● Ekoizpen-bulegoak, arte-tailerrak eta platoak

Euskadin, zinema-ekoizpenak batez ere kokalekuetan egiten dira, bai, baina ezin dugu aztertu gabe utzi grabaketa-platoek zer-nolako eragina duten ingurumeneari. Era berean, ekoizpen-bulegoak eta arte-tailerrak lan-espazioak dira, hau da, haietan ere ezarri behar dira jasangarritasun-neurriak.

Ikuspegia

Ekoizpen-bulegoetan, ekoizpen-tailerretan eta platoetan gero eta ohikoagoa izango da iturri garbi eta berriztagarrietatik datozen energiak erabiltzea. Era berean, jasangarritasun-protokoloak ezarriko dira, lehentasuna ematearren energia-eraginkortasunari eta ahalik eta hondakin gutxien sortzeari.

Euskadin grabazio-estudioak sendoago finkatzen diren heinean, instalazioak eta zerbitzuak ondo prestaturik edukiko dituzte zinema-industriak darabiltzan jasangarritasun-eskakizunei erantzuteko. Eta, denborak aurrera egin ahala, ekoizpen-enpresentzat berebiziko garrantzia izango dute ziurtagiri berdeak lortzeko.

● Erosketa politika

Produkzioetan talde teknikoek erabiltzen dituzten material, osagai eta tresna guztiak produkzio-materialak dira. Produkzio-taldeak, ordea, ez du parte hartzen sail bakoitzaren erosketetan, eta sail horiek hartzen dituzten erabakiak askotan ez dira jasangarriak izaten, informaziorik ez dutelako edo arrazoi ekonomikoengatik.

Ikuspegia

Dekoraturako, jantzigintzarako eta atrezzorako materialak eta osagaiak erosteko orduan, ingurumenari eta gizartearen hobe-beharrari ere begiratu beharko zaie, eta ez diruari bakarrik. Ahal den guztietan, material jasangarriak aukeratuko dira, hau da, material biodegradagarriekin egindakoak eta erraz berrerabili eta birziklatzeko modukoak.

Zinema-produkzioek, erosketen bidez, hornitzaileen jarreretan ere egingo dute eragin, jasangarriago jokaraziz. Produktu eta zerbitzu jasangarriak eskaintzen hasiko dira, indarrean diren arauak eskatu bezala. Gainera, bideragarria denean, tokian tokiko fabrikatzaileei eta hornitzaileei emango zaie lehentasuna, eta, hala, garraio-distantziak eta karbono-isurketak murriztu egingo dira.

ZEHARKAKOAK

Zeharkako jarduera-ildoetan dauka plan honek eragin-ahalmen mugatuena. Askotan, azaleratzen diren erronkak berberak dira produkzio-sektore gehienetan, eta politika globalak eta egiturazkoak eskatzen dituzte. Gainera, beste era batera funtzionatu beharra eskatzen dute, pentsaera aldatu beharra, eta, horretarako, denbora eta baliabideak behar dira. Nolanahi ere, jarduera-ildo hauek erreferentzia-puntu bat izango dira sektorearentzat, lehen urratsak emateko ekintza batzuk proposatzeaz batera.

● **Garraioa eta logistika**

Ekoizpenek ingurumenean egiten duten kaltearen erdia baino gehiago garraio-lanetan sortzen da; jendea, materiala eta elektrizitate-sorgailuak garraiatzen erabiltzen den erregaiak sortzen du. Beraz, zinemagintzak ingurumenean egiten duen kaltea murriztu nahi izatera, hauxe da puntu kritikoenetako bat. Baina beste industria-sektore batzuei ere eragiten die, eta orokorrean gizarte osoari.

Ikuspegia

Mugikortasun jasangarria aurrera egiten ari da, bai teknologiak bai politika publikoek hauspoa emanda, eta, aurrerantzean, produkzioak karbono-aztarna murrizteko moduan izango dira. Uste izatekoa da, gainera, ibilgailu elektrikoetan ere geroz eta aukera zabalagoa egotea, eta, hortaz, errazagoa izango da garraio- eta logistika-lanetan gas gutxiago isurtzea.

Edonola ere, epe laburrera, hobe garraioa eta logistika hobeto erabiltzen saiatzea (bikain erabili behar dira). Zenbat eta ibilgailu eta bidaia gutxiago, hobe; ez dago taktika hobeagorik ekoizpenen ingurumen-inpaktua mehetzeko.

● Ekoizpen-materialak

Ekoizpen-materialen artean daude, besteak beste, dekoratuko elementuak, atrezzoak, beharginen jantziak eta abar. Gaur egun, oso gutxitan planifikatzen da noiz-nola-non amaituko duten ekoizpen-materialek. Berrerabiltzen ez dena ongintza-erakundeei ematen zaie edo bota egiten da, hau da, azkenean, energia sortzeko erabiltzen da, edo erre egiten da, edo zabortegira doa.

Baina beti ez da erraza izaten materialak berrerabiltzea: epeak laburrak, aurrekontuak doiak, informazioa eskas, biltegiatze-kostuak lodi, eta berrerabilpen-zerbitzua emateko jende gutxi. Jantziak eta atrezzoak, ordea, ohikoagoa da produkzioen artean alokatzea eta berrerabiltzea.

Ikuspegia

Dekoratu-elementuek, jantziek eta atrezzoek balio izaten jarraitu behar dute, eta eraginkortasunez berrerabili behar dira. Dekoratuak diseinatu eta eraikitzeke orduan, zirkulartasun-printzipioak erabili behar dira: desmuntatzeko errazak izango dira, osagai modularrak erabiliko dituzte, eta material inoiz erabili gabeak, berriz, ahalik eta gutxien baliatuko dira.

Ikus-entzunezkoen sektorea Euskadin hobeto finkatzen den heinean, zerbitzu berriak sortuko dira eta errazagoa izango da material berrerabiliak trukitzea, baita arte eszenikoetako enpresen eta ongintzako erakundeen onerako ere.

● Elektrizitatea eta ura

Kokalekuetan, elektrizitatea nahieran eta eroso eduki nahi denez, gehien bat diesel multzo elektrogenoak erabiltzen dira. Baina, erregai fosilak erabiltzen dituztenez, emisioak eragiten dituzte, eta, zinema-produkzioen ingurumen-inpaktuan, emisio horiek dira kalte handiena egiten dutenak; horixe dute desabantaila nagusia. Gainera, grabaketa tradizionalako ekipoen batzuk oraindik ere asko erabiltzen dira, hala nola lanpara halogenoak dauzkaten luminariak, funtzionaltzeko energia asko behar arren.

Ekoizpen-etxe batzuek ia erabat baztertu dituzte ur-botilak, plastikozko hondakinak murrizte aldera batez ere. Baina zenbat ur kontsumitzen den ere izan behar da kontuan, ez baita xahutu behar.

Ikuspegia

Aurrerapen handiak ari dira gertatzen energia hobeto sortzeko eta biltegiatzeko lantegian; orain askoz arinago konekta gaitezke sarera; eta, aurrerantzean, kokalekuetan energia garbia erabili ahal izango da, bai kalean bai ingurune naturaletan. Aldi berean, ezin aipatu gabe utzi -giltzarri baita elektrizitate-kontsumoa murrizten jarraitzeko- dimentsioak eta erabilera-denbora etengabe ari direla doitzen, eta ekipoen energia-efizientzia geroz eta hobea dela. Ekoizpen-bulegoetan, grabazio-platoetan eta arte-tailerretan ohikoa izango da energia berriztagarriak erabiltzea.

Era berean, gauza arrunta izango da ur-sare publikoa erabiltzea, ur hori zuzen-zorrotz erabiltzea, eta hartara ekoizpenen karbono-aztarna hobetu egingo da.

5. EKINTZAK

Euskadiko zinemagintzaren jasangarritasunaz ari garen honetan, helburuak eta etorkizun-ikuspegia gauzatzeko aldera, proposamen batzuk egin ditugu: ekintzak. Hiru ekimen handitan daude bilduta: Basque Green Film idazkaritza teknikoa, ikus-entzunezkoen ekoizpenerako laguntza-programak eta lan-mahaiak.

5.1. BASQUE GREEN FILM

BGFk 2022-2024 aldirako zinema jasangarriko plana bultzatuko du, sektore honetako enpresei zerbitzuak eskainiz

Basque Green Film (BGF) idazkaritza tekniko bat da, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sortua, Zineuskadirekin koordinatua. Haren zeregin nagusia 2022-2024 zinema jasangarriko plana bultzatzea da, sektoreko enpresentzako zerbitzuen bitartez.

Berez, Basque Green Film-ek tresna erabilgarria eta praktikoa izan nahi du, zinemagintzaren egunerokora begira jarria erabat. Horretarako, betiere sektorearen beharren eta bilakaeraren arabera, baliabideak eta edukiak eguneratu egingo dira; informazioa trazarik gabe partekatuko da; eta enpresen artean esperientziak trukatzeko eta lankidetzan aritzea bultzatuko da.

BGFen jarduerak eta zerbitzuak garatze horretan, ikus-entzunezko sektorearen eragile nagusiekin lankidetzan jardungo dugu, zehazki, Euskadiko hiru Film Commission batzordeekin (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) eta zinema ekoiztetxeen elkarteekin (Apika, EPV-APV, Ibaia eta Eiken).

Aholkularitza pertsonalizatua

BGFk aholkularitza pertsonalizatua eskainiko die Eusko Jaurlaritzaren laguntzetara aurkezten diren proiektuei (ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzetara).

2022tik aurrera, Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoen ekoizpenerako ematen dituen laguntzetan, jasangarritasun-plana dakarten proiektuei puntu bat emango zaie. Lan hori errazte aldera, aurkezten diren ikus-entzunezko proiektuei aholkularitza eskainiko zaie, bakoitzari bere erara.

Aholkularitza-zerbitzu horretan, jasangarritasun-plana nola idatzi jorratuko dute, laguntza modura oinarritzko gida eta autodiagnostiko-fitxa bat erabiliz. Aholkularitza-zerbitzu hori, gainera, ona izango da ekoizpen-taldeak hobeto ikus dezan zein diren zinema jasangarriaren erronkak, nola planifikatu behar den, eta zer baliabide dauden horretarako eskura.

2022–2024 helburu espezifikoak

BGFren aholkularitzarekin urtean 25 jasangarritasun-plan garatu dira.

Oinarritzko gida: ikus-entzunezko produkzioetarako jasangarritasun Plana

Autodiagnostiko fitxa

1.0 bertsioa BGF Basque Green FILM 1/2 or.

Datuak

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|--|----------------------|--|----------------------|---|-----------------------------------|---|------------------|--|-------------------|---|-----------------------------------|---|-----------------|---|--------------------|---|-------------------|---|-------------------------------------|---|-----------------------|--|-----------------------|---|-----------------------------------|---|
| Izenburua: <input style="width: 100%;" type="text"/> Ekoiztetxea(k): <input style="width: 100%;" type="text"/> Generoa: <input style="width: 100%;" type="text"/> Aurrekontua: <input style="width: 100%;" type="text"/> Aurreikusitako filmaketa-urtea: <input style="width: 50%;" type="text"/> Gutxi gorabeherako iraupena: <input style="width: 50%;" type="text"/> Atal-kopurua: <input style="width: 50%;" type="text"/> | <table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 60%;">PREPRODUKZIOA</td> <td style="width: 40%;"></td> </tr> <tr> <td>Preprodukzio-egunak:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> <tr> <td>Talde teknikoko pertsona-kopurua:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> <tr> <td>FILMAKETA</td> <td></td> </tr> <tr> <td>Filmaketa-egunak:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> <tr> <td>Talde teknikoko pertsona-kopurua:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> <tr> <td>Aktore-kopurua:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> <tr> <td>Figurante-kopurua:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> <tr> <td>Kokaleku-kopurua:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> <tr> <td>Kokaleku urrenen arteko distantzia:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> <tr> <td>POSTPRODUKZIOA</td> <td></td> </tr> <tr> <td>Postprodukzio-egunak:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> <tr> <td>Talde teknikoko pertsona-kopurua:</td> <td><input style="width: 100%;" type="text"/></td> </tr> </table> | PREPRODUKZIOA | | Preprodukzio-egunak: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | Talde teknikoko pertsona-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | FILMAKETA | | Filmaketa-egunak: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | Talde teknikoko pertsona-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | Aktore-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | Figurante-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | Kokaleku-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | Kokaleku urrenen arteko distantzia: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | POSTPRODUKZIOA | | Postprodukzio-egunak: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | Talde teknikoko pertsona-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> |
| PREPRODUKZIOA | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Preprodukzio-egunak: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Talde teknikoko pertsona-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| FILMAKETA | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Filmaketa-egunak: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Talde teknikoko pertsona-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Aktore-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Figurante-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Kokaleku-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Kokaleku urrenen arteko distantzia: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| POSTPRODUKZIOA | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Postprodukzio-egunak: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Talde teknikoko pertsona-kopurua: | <input style="width: 100%;" type="text"/> | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

Analisia

LANGILE KOPURUA

| Attertu beharreko alderdi kritikoak | Enantzuna | Kontuan hartu beharreko neurriak | Oharrak |
|--|--------------------------|---|--|
| Aurreikusi da produkzio-bulego bat gaitzea? Aurreikusi da arte-tailer bat gaitzea? | <input type="checkbox"/> | 100 % berriztagarria den energia elektrikoak kontratatzea Komunikazio digitala Garraioa optimizatzeke plana | <input type="radio"/> <input type="radio"/> <input type="radio"/> |
| Filmaketa-egun normal batean, zein da talde teknikoko, artistikoko eta figurazioko pertsona-kopurua guztira, gutxi gorabehera? | <input type="checkbox"/> | Garraioa optimizatzeke plana Botila berrerabilgarriak eta tokiko sareko ura erabiltzea Lehentasuna ematea jasangarritasunarekiko konpromisoa duten jateitxe eta cateringes Tokiko teknikariak kontratatzea | <input type="radio"/> <input type="radio"/> <input type="radio"/> <input type="radio"/> |
| Aurreikusi da Euskaditik kanpoko teknikari edo langile artistikoak kontratatzea? | <input type="checkbox"/> | Distantzia handiko bidaietan, lehentasuna ematea trenari abioiaren aurretik Ziurtatutako instalazioetan hartzea ostatu Tokiko garraio publikoaren aukeren berri ematea | <input type="radio"/> <input type="radio"/> <input type="radio"/> |

Prestakuntza-tailerrak

Urtean zehar, zinema jasangarrian sentsibilizatzeko eta prestatzeko tailerrak emango dira.

Prestakuntza-tailerrak funtsezko tresna izango dira, lehenik eta behin, zinemaren sektorea jasangarritasunaren garrantziaz jabetu dadin, larrialdi klimatikoa bertan baitugu. Bigarrenik, ikus-entzunezko produkzio-prozesuan jasangarritasun-irizpideak txertatzen lagunduko diete enpresei eta profesionalei. Eta, azkenik, lankidetzaren gune bat izango dira, ezagutza elkarbanatzeko, bai parte hartzen dutenen artean, bai haien eta sektoreko gainerako guztien artean ere.

Prestakuntza-tailerretan eduki hauek transmitituko dira: batetik, klima-larrialdiaren testuinguru globala, ingurumen-inpaktua, eta inpaktu horrek ikus-entzunezkoen sektorean duen eragina; eta, bestetik, jasangarritasunaren plangintza eta ekoizle eta profesionalek eskura dituzten baliabideak. Azkenik, jasangarritasun-irizpideak betetzen dituzten ekoizpenen adibide praktikoak aztertuko dira.

Tailer horiek norentzat izango diren? Enpresa ekoizleetako langile, ekoizpeneko profesional, sail teknikoetako arduradun, eta funtsezko enpresa hornitzaileetako langileentzat. Aurrez aurre eta online eskainiko dira, eta bi eta hiru ordu bitarteko iraupena izango dute. Tailerrak antolatzeke eta eskaintzaren berri emateko, Euskadiko ekoizleen elkarteekin eta hiru film commission-ekin lankidetzan arituko gara.

2022–2024 helburu espezifikoak

Urtean 50 profesionalek hartu dute parte prestakuntza-tailerretan.

Laburpen-fitxa. Prestakuntza-tailerrak

Aurrez aurreko tailerra

- Parte-hartzaileak: gehienez 12 lagun.
- Iraupena: 3 ordu.

Online tailerra

- Parte-hartzaileak: gehienez 6 lagun.
- Iraupena: 2 ordu.

Edukiak

- Larrialdi klimatikoa eta jasangarritasuna.
- Zinemak ingurumenean daukan inpaktua.
- Mugikortasunaren plangintza.
- Tresnak eta baliabideak.
- Aztertzeke adibideak eta kasuak.

Norentzat den:

- Ikus-entzunezko ekoizpen-enpresetako langileak.
- Sail teknikoetako arduradunak.
- Funtsezko hornitzaileak: argiztapena, cateringa, garraioa, etab.

Web BGF

Ezagutzarako oinarri bat, handituz joango dena, gomendioak, jardunbide egokien adibideak eta baliabideak erabiliz.

Basque Green Film-ek webgune bat ere izango du. Sektorearentzat abiapuntu moduko bat izango da, baina baita zinema jasangarriaren ekoizpena ezagutzeko oinarri ere. Hasiera batean, ate moduko bat izango da, hartatik iritsiko baikara ekoizpen-etxeei eskaintako oinarriko zerbitzu eta informazioetara. Ondoren, aldi aldi, edukiak osatu eta eguneratu egingo dira, gomendio eta neurri espezifikoak erantsiz, jardunbide egokien adibideak, eta zinemako profesionalentzako baliabideak.

Gainera, Euskadiko edozein zinema-ekoizle edo -profesionalek erabili ahal izango du, BGF talde teknikoari posta elektronikoz unean uneko edozein zalantza galdeltzeko zinema jasangarriaren ekoizpenari buruz. BGFren webgunea euskadi.eus barruan egongo da.

2022–2024 helburu espezifikoak

Hilean behin gutxienez, eduki berriren bat (aztertze moduko kasuak, gomendioak, neurri aurreratuak eta abar).



EU | ES BUSCAR CONTACTO MI CARPETA euskadi.eus

< Cultura
Promoción de la Cultura Departamento de Cultura y Política Lingüística

Conócenos Áreas Ayudas y subvenciones Premios Euskadi Literatura Planes y Proyectos

Basque Green Film (BGF)

BGF Basque Green FILM
El punto de encuentro del cine sostenible en Euskadi
 Basque Green Film (BGF) es la secretaria técnica impulsada por el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco para impulsar el cine sostenible en Euskadi.

Guía básica
Una guía pensada para que las productoras de cine elaboren planes de sostenibilidad en sus producciones.
 La Guía básica para la producción de cine sostenible en Euskadi tiene como principal objetivo orientar a las empresas productoras en la elaboración de un plan de sostenibilidad de sus producciones audiovisuales. Es un documento en el que se presenta paso a paso cómo elaborar este plan, cómo integrarlo en la producción y una serie de medidas de sostenibilidad aplicables.
[Guía Básica: plan de sostenibilidad para producciones audiovisuales \(pdf, 210 kB\)](#)

Plan de sostenibilidad
 Este plan es la herramienta central de la gestión de la sostenibilidad en una producción cinematográfica. En él se establecen objetivos, se seleccionan medidas específicas y se definen responsables y plazos. Para facilitar su elaboración, aparte de la guía básica, se ofrece una plantilla modelo y una sencilla herramienta de autodiagnóstico.
[Plantilla modelo \(docx, 820 kB\)](#)
[Ficha de autodiagnóstico \(pdf, 90 kB\)](#)

Topaketa profesionalak

Euskadiko zinemagintzak egiten dituen topaketa profesionaletan BGFk ere parte hartuko du, bete-betean.

Ikus-entzunezkoen sektoreak topaketa eta erreferentziatzako ekitaldi batzuk ere antolatzen ditu; bada, funtsezko kanala dira, enpresekin eta profesionalekin kontaktuan egoteko. Horra hor, esate baterako, Donostiako Jaialdia (SSIFF), Zinebi, edo antzeko beste batzuk. Halakoetan, programen barruko jarduerak leku paregabea dira sektorearen atea jotzeko eta esku artean ditugun gaiak aurkezteko eta haien garrantzia azaltzeko. Bestalde, ekoizle-elkarteek aldian-aldian bazkideekin bilerak egiten dituzte, intereseko gaiez hitz egiteko.

BGFk zinema jasangarriaren ekoizpenari buruzko edukiak eta jarduerak eskainiko dizkie jaialdi, elkarte eta beste topaketa profesional batzuei. Eduki horiek askotarikoak izan daitezke, esate baterako, ekoizle-etxeek kasu arrakastatsuak ekar ditzakete; zinema jasangarriaren produkzioan berritik zer dagoen azal daiteke; edo laguntza-programetan jasangarritasun-irizpideak txertatzeko ahaleginean nola egin den aurrera.

2022–2024 helburu espezifikoak

BGFk urtean bost topaketa profesionaletan parte hartuko du.

| BGF zerbitzuen eta helburu espezifikoen laburpen-taula | |
|--|--|
| Zerbitzua | Helburu espezifikoa |
| Aholkularitza pertsonalizatua | BGFren aholkularitzarekin urtean 25 jasangarritasun-plan garatu dira. |
| Prestakuntza-tailerak | Urtean 50 profesionalek hartu dute parte prestakuntza-tailerretan |
| BGF web | Gutxienez hilean behin eduki berri 1 |
| Topaketa profesionalak | BGFk urtean 5 topaketa profesionaletan parte hartuko du |

5.2. LAGUNTZA-PROGRAMAK

Eraldaketak bizkortu nahi izatera, kulturarako laguntza-programa publikoetan balorazio-irizpide batzuk sartzea beti da eraginkorra, edozein sektoretan. 2021ean eta 2022an, ICAA eta Europa Creativa moduko erakunde aintzatetsi zenbaitek jasangarritasun- irizpideak txertatu dituzte ikus-entzunezkoei laguntzeko programetako batzuetan. Datozen urteetan, Europako eta Estatuko beste programa batzuek ere hori bera egingo dute beren programetan.

Eusko Jaurlaritzaren laguntzak ikusentzunezkoak ekoizteko

Ikus-entzunezko produkziarako laguntzetan, jasangarritasun-plan bat aurkezten duten proiektuei Eusko Jaurlaritzak puntu bat emango die.

2022tik aurrera, proiekturako jasangarritasun-plan bat aurkeztu beharko dute. Zeregin hori errazteko, BGFk aholkularitza-zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen die, gida bat, autodiagnosi-fitxa bat eta plan-txantilo bat.

Ziurtagiri berdea

2024tik aurrera, ikus-entzunezkoen ekoizpenari laguntzeko programetan Green Film ziurtagiria ere eskatuko da.

2020an, Cineregiok konpromisoa hartu zuen Green Film sistema erabiltzeko ziurtagiri berde erkide modura. Europako eskualdeetako zinema-erakundeen sarea da Cineregio, eta sare horretako kide da Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura eta Hizkuntza Politika Saila ere. Horixe izango da 2024rako helburuetako bat, ziurtagiri berdea txertatzea.

Kualifikazio-sistema horren bidez, argi eta garbi ezarrita egongo da zer irizpide baloratuko diren jasangarritasun- planak egiteko, zer dokumentu beharko diren plan horiek justifikatzeko, eta azken egiaztapen-prozesua nola egingo den. Gainera, jasangarritasun-konpromisoak hartu dituztela erakusten duenez Green Film ziurtagiriak, ekoiztetxeek harro erakutsiko dute ziurtagiria komunikazio-ekintzetan, konpromiso horren seinale.

Funtzionamendua

Filmatzen hasi aurretik

- Ekoizpen-etxeek adierazi behar dute GREEN FILMen zer jasangarritasun-irizpide beteko dituzten.
- Ekoizpen-etxeek aurretiazko ezinbesteko dokumentuak aurkezten dituzte: Jasangarritasun Plana eta Garraio Plana.

Filmaketan zehar

- Hitzeman dituen neurri horiek bete egin behar ditu ekoizpen-etxeak.
- Erakunde egiaztatzaile batek irizpideak betetzen diren egiaztatuko du.

Filmaketaren ondoren

- Ekoizpen-etxeak dokumentazioa aurkezten du, egiaztatu ahal izateko.
- Erakunde egiaztatzaileak dokumentazioa berrikusi egiten du.
- Egiaztapena positiboa bada, ekoizpenak GREEN FILM ziurtagiria jasoko du erakunde egiaztatzailearen eskutik.

5.3. LAN-MAHAIK

Inplikaturako eragileen arteko lankidetzak funtsezkoa izango da Euskadiko Zinema Jasangarriaren 2022-2024 Estrategia betetzeko. Planaren talde eragilea etengabe koordinatzeaz gain, ezinbestekoa izango da Euskadiko zinemaren sektoreko funtsezko eragileekin lan egitea eta Europar erreferente diren ekimenetan bete-betean parte hartzea.

Talde eragilea

Plan honen talde eragilea honako hauek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak -sustatzaile nagusia izanik-, Zineuskadik eta Basque Green Film (BGF) idazkaritza tekniko eratu berriak. Zineuskadi buru izanik, koordinazioa etengabea izango da; eta BGF arduratuko da, gainera, batik bat zinemako produkzio-etxeei eta profesionalei zuzendutako zerbitzu eta jarduerak. Hiru eragileek elkarrekin zehaztuko dute urteko zereginen eta helburuen plana, eta jarraipena ere egingo dute, hilero.

Euskadiko eragile giltzarriak

Sektore honetan eragin handiena dutenak dira, hain zuen, eragile giltzarriak; haiek jartzen dituzte enpresa, profesional eta erakunde gehien bata bestearekin harremanetan. Euskadin, eragile horiek film commission-ak, produkzio-etxeen elkarteak eta zinema-jaialdiak dira. Talde eragileak plan hau nola doan azalduko die, eta zer irizten dioten ere galdetuko die. Gainera, sektoreko enpresei eskaintzen dizkieten jarduerak eta zerbitzuak kanal ezin hobeak dira plan honetako gainerako ekintzekin sinergiak sortzeko.

Euskadiko film commission-ak (Bilbo, Donostia, Gasteiz) dagoeneko konprometituta daude zinema jasangarriarekin; ekimen bat baino gehiago antolatzen dute norabide horretan. Enpresa ekoizleen, udalerrien eta erakunde publikoen artean mamitzen duten bitartekaritza-lana dela-eta, hurre-hurretik ezagutzen dituzte sektoreak dituen arazoak nahiz eskaintzen dituen aukerak. Horregatik, eragile estrategikoak dira zinema jasangarriaren estrategia garatzen.

Bestalde, ikus-entzunezkoen lau ekoiztetxe daude Euskadin (Apika, EPE-APV, Ibaia eta Eiken) eta erakunde oso aktiboak izateaz gain, sektorearekin zintzo konprometituta daude denak ere. Lauren artean produkzio-enpresen gehiengo nabarmena osatzen dute, eta kolektibo horrekin harremanetan jartzeko solaskide egokienak haixek dira.

Azkenik, ezin aipatzeke utzi Zinemaldia edo Zinebi, eta profesionalentzako duten merkatua, elkarrekin jarduteko eta aurreikusitako ekintzen berri zabaltzeko espazio natural aproposa dira-eta.

Nazioarteko sarea

Nazioartean, talde eragileak Cineregioi parte hartuko du batez ere; zehazki, zine jasangarria lantzeko engaiatuta dauden kideen lan-taldean. Talde horretako lan-saioetan, zertan diharduten azaltzen dute elkarteek, baliabideak elkarrekin banatzen dituzte eta zineari laguntzeko programak koordinatzen dituzte.

Gainera, Italian, Danimarkan, Norvegian eta Belgikan ere, zinegintzari laguntzeko programetan dagoeneko ezarrita daukate Green Film ziurtagiri-sistema (Cineregiok bultzatuta). Sistema hori darabilten erakundeak harilkatuta daude –Trentino Film Commission-ek koordinatuta-, batzuek eta besteek dituzten arazoen berri emateko eta sistema hobetzeko ideiak proposatzeko.

Estatuan, Academia de las Artes y las Ciencias Cinematográficas-ek aurkeztua du Guía de Buenas Prácticas del Sello Verde de la Academia. Haren itzalpean, ikus-entzunezkoen sektoreko erakunde-entzat errazagoa izango da lan- eta solas-taldeak sortzea, zinema jasangarria ekoizteko bidean aurrera egiteko. BGFkook ere parte izango gara agian talde horietan (aztertze daukagu), bai eta hurrengo urteetan sortuko diren beste foro batzuetan ere.

Euskadiko Zinema Jasangarriaren Estrategia 2022-2024

